



ARKOTXA UGALDE LOURDES (UDALETXEA)  
HERRIKO PLAZA  
ARRASATE 9  
0



“La Traviata” eta “Otello” Arrasaten  
**“Bravissimo”**



# T O D A S

ARRASATEKO UDALA  
(KULTURA SAILA)



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA

- Taldea: **TTANTAKA** • Non: **Amaia antzokian** •
- Noiz: **Martxoak 3, ostirala, 10'30etan** •
- Sarrera: **700 pta. / Gazte txartelarekin 500** •

# C U L P A B L E S


## ARRASATEKO IKASTETXE PUBLIKOEN ESKAINTZA: "D" ETA "MURGILTZE" EREDUAK

2 urtetik 18ra Irakaskuntza Publikoa, Euskalduna eta Dohainekoa

### HAUR HEZKUNTZA

Haurren egokitze  
prozesua, autonomia  
eta sozializazioa  
bultzatzen dugu

Dohainik  
2 urtetik 18 urte arte  
Euskara  
Jangela  
Gurasoekin harremanak  
Eskolaz kanpoko ekintzak  
Garraioa



Hizkuntza



Joku simbolikoak



Lur eraiketak



Sensore motorea

**MUSAKOLA, ERGUIN ETA SAN ANDRESEN**



# Guztiondako aukerak berdindu

hauteriak pasatu dira jadanik, lasaitu gara behingoz. Hainbeste jantzi, prestaketa eta antzeko kontuek izan dute bere fruitua; ondo datorkigu, zerbaitetan jaustea, umorean alegia, hori da garrantzitsua: egun hautetan ez bada ere (kontsuelo barregarria), lotsa galtzea.

Argi dago, inguruari gehiago zabaltzeko, lotsa galtzea beharrezko dugula. Horrela, gure karkaxa herdoilduek haize fresko berria har dezaten. Baina, bestelako lotsak berreskuratu egin beharko genituzke aldi berean: "besteen" egoera konkretuak, eta batzuen eta besteen arteko desberdintasunen arazoak ikusi nahi izatearena.

Adibidez, kapitalismo internazionalak (diruak ez dauka aberririk) bere erakunde "legal" horiekin batera (FMI, BM, GATT, etab.) herrialde txiro asko lapurtu eta zapaltzen ditu etengabe, guk "zorionsuok", aberastasun eskaparate hautetan sartzeko itsu gauden bitartean, gure ondokoak zapaltzen baditugu ere. Bitartean, Hegoaldeak eta krudelki deituriko "3. Mundu" horretako bizilagunek, ezin dute, inola ere, egoera hori aldatu. (Agian bai, galdetu Markosi...) Indiferentzia izugarri


baten sareak itozten uzten ditu azpian.

Lurreko aberastasuna eta boterea oso era bitxian daude banatuta. Ez bakarrik geografian ar-

bera, sexua ere puntu bereizgarri garrantzitsua da. Berrehun urte baino ez daramatza emakumeak botoa ematen. Lan egiteko aukerak ere hobetu egin dira, Iparraldean behintzat (Hegoaldean, orokorrean, ez da aldaketa kultural nabaririk somatzen). Baina oraindik ere, botereko postuak eta soldata (on) gehienak gizonen eskuetan daude.

Bikoteen arteko erlazioan, orokorrean, emakumea da bere sabelean sufritu beharreko seme-alabetaz arduratu beharrekoa, baita etxeko kontu eta lanetaz ere. Zenbait kasutan, diru erabileraren murrizketa jasan dezake, eta gustora egoten ez bada adibidez, bikotea uzteko egoera dependentsial-desabantailen egongo da.

Batzuk aske izatea lortzen badute ere, kaleko edozein leku eta ordutako giroa ez da beti oso aproposa suertatzen. Batzuk emakumea sexu objektutzat edo zerbitzaritzat dute, pertsonatzat hartu beharrean. Guztiak, garen moduko pertsonatzat onartzea da bidezkoa, gainera eta azpikorik gabe, errespetu eta eskubide berdinean eta osoz. Hau egia bihur dadin, badago oraindik zereginik, eta guk muti- lok, gutxienez egin dezakeguna, hauxe ulertzea eta onartzea da.




IKER  
BARAN-  
DIARAN



Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jauritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

## • ARRASATE PRESS •

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tfnoa: 77 05 65, Faxa: 77 09 40

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Maria Agirre. **Kazetariak:** Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Hizkuntz arduraduna:** Arantza Ozaeta. **Publizitatea:** Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Blanca Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agornia, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopti, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoia, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Coop. E. (Zubillaga, Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

**Azaleko argazkia:** "La opera. Enciclopedia del arte lirico" liburutik atarata.



# Mendi taberna

**MENDI DA ZURE ETXEA**

Maalako Arrabala, 4  
Tfnoa: 79 20 54



**Alkoholarekin arazoak  
dauzkazu?**

**Agian,  
"Alkoholiko  
Anonimek" lagundu  
ahal dizute!!**

**Alkoholiko  
Anonimoak**

3. areako Informazio bulegoa  
(Gipuzkoa)  
Tfnoa: 61 93 38

## ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

**Zerbitzuak:**

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala  
(Psikomotrizitatea eta  
hizkuntz bereziera)  
Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola  
arazoak, enuresia  
(Ohe bustitzea),  
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10  
Tfnoa: 79 48 77  
ARRASATE

## TTUKUN

Fotokopiak  
Enkuademazioak  
Koloretan fotokopiak  
Planoen erreproduktzioa  
Offseta

Ferreñas, 23 ARRASATE  
Tfnoa: 79 46 62

....

## Martxoak 8... Feminismoa kalera

**B**erriro ere gure premia-ko beharren inguruan jiraka iragan da urtea... eta gure arazo existentzialen barneruntz begiratzean... emakumeok kale bakartietan bakarrik ibiltzeko edo auto-stop egiteko beldur garen errealitatearen aurrean, gure barnekaldea oihuka dabil oraindik; makina bat emakume, senar, aita edo gizon-lagunak kaleetan eta baita etxeetan ere bortxatuak izaten garen errealitatea (Euskal Herrian azken urtean 14.500 emakumek tratu txarrak jasan dituzte, eta hauek kasuen % 5a izan dira soilik salatuak). Haserrea emakumearen aurkako biolentzia babestu eta erregulatzen duen zigor-arautegi baten aurrean; 19 eta 25 urte bitarteko neska gazteen %90a langabezia egotearen aurrean; babesik gabeko, epeltasunik gabeko jubilazio baten aurrean... diru iturririk gabe, bakardadean eta xirotasunean.

Gutziz harrigarria XXI. mendearen atarian oraindik gure lana ikustezina izatea, kontutan hartu gabekoa. Bai idatziz edo ikusentzuteko desinformazio ideolojiko bitartekariak, emakumeen gehiengo guztiz despistatzea lortu ahal izatea, menpeko-

tasun jarrera batekin norberaren segurtasun soziala ez izatea, norberaren jubilatzea, gizarte soldata minimoa, eta emakumeon %70a lehenengo eskubide demokratikoa eskatzen jardutea: ekonomikoki libre izateko lanpostu bat eta norberaren bizitza eraiki ahal izatea... gurea, benetan lotsagarria da.

Gure herriaren emanzipazioaren aldeko borrokan bizia eman duten emakume guztiei, ikaraturik bortxakeria jasan duten eta jasatzen ari direnei, komisaldegietan eta kuarteliloetan torturak eta eskarnioa, eta egunegun, erdiaroko kartzeletan, euren ahaleginen izardiarekin guztion alde askatasuna aldarrikatzen dutenei gure omenaldirik hunkigarriena eskaini nahi diegu.

Familia patriarkarra deusestu beharrean gaude, gure menpekotasunaren oinarria, emakumeok koltxoi eta fregonona bihurtzen gaituena... bestean tranpolin eta euskarria.

Gizartean partehartzea aldarrikatzen dugu, berdintasunean gizarte bat eraikitzeko, harremanak kolaborazioan, askatasunean eta guztion zorientasunean oinarritzen direlarik.

Betidanik zanpaturik... baina aski da!!

**EGIZAN**

## MARGOAK JUANMA

Margoak, paperak,  
gotelea e.a.

Agerre kalea, 5 3. ezk.  
Tfnoa: 79 69 17



## ITURRIOTZ taberna

**Girorik  
jatorrena!**

Tfnoa: 79 16 04



# Zer izan gura zenuke nagusi egiten zarenean?



**Iban Labaien**  
12 urte

Futbolista, Laudrup bezalakoa. Futbola gustatzen zait eta talde baten jokatzeko baina ez dut uste Laudrup bezalakoa izango naizenik.



**Maialen Romero**  
12 urte

Badakit asko ikasi behar dela, baina epailea izatea gustatuko litzaidake.



**Oier Talledo**  
13 urte

Kiroletako irakaslea. Besteri gauzak irakastea gustatzen zait.



**Yanire Beitialarriñoitia**  
7 urte

Karateka. Laster hasiko naiz karatea ikasten.



**David Tera**  
12 urte

Sukaldaria, Argiñano bezalakoa. Askok gustatzen zait janariak prestatzea, tortilla oso ondo prestatzen dut.



**Naia Perianez**  
6 urte

Dendaria diru asko irabazten dute eta. Askok gustatzen zait "dendarika" jolastea.



**Inko Zubia**  
8 urte

Bakeroa, telebistan ikusten ditut eta askok gustatzen zait. Sheriffa izan nahi dut.



**Ainhoa Nafarrate**  
5 urte

Amatxo, umeak zaintzea gustatzen zait eta. Etxean bost panpin ditut eta guztiak zaintzen ditut.

## S. CARRASCAL S.L.

### Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

### Fabrikaren erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6-1.a  
Tfnoa / FAX: 79 01 82

## ZUBIZARRETA TAILERRAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 15 65



ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.  
Tfnoa: 79 77 11  
Faxa: 79 77 11  
ARRASATE  
Postakutxa: 118



**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritetxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. ....79 53 00  
 Igualaria .....79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) .....79 39 00  
 (emakumeak) .....79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua .....79 90 11

**Gurutze gorria**  
 Bergara .....76 55 76

**DYA**  
 Antzuola .....76 62 91

Anbulatorioak  
 Arrasate (Larrialdiak) .....79 13 57  
 (Txanda hartzeko).....77 03 46  
 77 07 21  
 Oñati .....78 08 52  
 Eskoriatza .....79 98 58  
 Aretxabaleta .....79 74 58  
 Aramaio .....(945) 45 51 16

**Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulanziazki .....45 87 44

**Udaltzaingoa**  
 Oñati .....78 04 11  
 Bergara .....76 14 69  
 Arrasate .....79 14 39  
 Aretxabaleta .....79 10 52  
 Eskoriatza .....79 03 22

**Ertzaintza**  
 Arrasate .....79 71 99

**Suhiltzaileak**  
 Udal taldea .....79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile burua .79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea .78 28 00

**Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) .....79 09 00  
 Elektrizitatea (Iberduero) .....12 01 62  
 Gasas .....900 40 05 23  
 79 78 44  
 79 76 78

**Garraioak**  
 Taxiak .....79 12 22  
 P.E.S.A. ....79 14 19

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
 Iturbide Egoitza .....79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza .....79 81 57  
**Kontsumitzailearentzako informazioa**  
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak .....79 87 77  
 KIUB-OMIC .....79 51 55  
**Monterongo liburutegia**  
 Monterron.....77 01 05

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala 3**  
 Egunez eta gauaz: Camacho. Bergara.  
 22'00ak arte: Irizar. Erguin.

**Larunbata 4**  
 Egunez eta gauaz: Puy. Bergara  
 22'00ak arte: Amezua. Sta. Marina.

**Igandea 5**  
 Egunez eta gauaz: Puy. Bergara  
 22'00ak arte: Ruiz. Maala.

**Astelehena 6**  
 Egunez eta gauaz:Guallar. Bergara  
 22'00ak arte: Morales. San Andres.

**Astearte 7**  
 Egunez eta gauaz: Estella. Bergara  
 22'00ak arte: Azkoaga. Ferrerías.

**Asteazkena 8**  
 Egunez eta gauaz: Mozos. Bergara  
 22'00ak arte: Español. Iturriotz.

**Osteguna 9**  
 Egunez eta gauaz: Camacho. Bergara.  
 22'00ak arte: Corcuera. Musakola.

**3 OSTIRALA**

**ZINEA**  
 "Los hombres siempre mienten"  
 7etan eta 10etan.

**KONTZERTUA**  
 "La Polla Records" eta "Estigia"  
 taldeen kontzertua gaueko  
 9etan Gaztetxean. Gipuz-  
 koako Gaztetxeen Koordi-  
 nadoraren aldeko kontzer-  
 tua.

**ANTZERKIA**  
 "Todas culpables" Tanttaka tal-  
 dearekin. Amaia antzokian  
 gaueko 10.30etan. Sarre-  
 ra: 700 pta. eta gazte txar-  
 telarekin 500 pta.

**AKORDEOI KONTZERTUA**  
 Akordeoi kontzertua, akordeoi  
 gelen aurkezpena dela eta.  
 Arrasate Musikaleko areto  
 nagusian arratsaldeko 7etan.  
 Arrasate Musikalek antola-  
 tuta.

**AEDko BATZARRA**  
 Gazte Asanblada sortzeko bile-  
 ra AEDren lokalean arra-  
 tsaldeko 7.30etan.

**FOLK ASTEBURUA**

Martxoaren 10ean, "The Hackney Rambles" gaueko 8etan eta "La Cucina" 9etan Sebero Altuben. 10.30etan "Pentangle", 11.30etan "Liberty Cage", 12.30etan "El bosque" eta ordu bata t'erdietan "Oyster Band" Musakolako kiroldegian. Martxoaren 11n larunbatez, eguerdiko ordu batean "El bosque", ordu bietan "The Hackney Ramblers", 7etan "La Cucina" eta 8etan "The Hackney Ramblers" Sebero Altube plazan. Gaueko 10etan "Rock Salt and Nails", 11etan "Na Lua", 12etan "La Cucina", ordu batean "Nuevo Mester de Juglaria", 2.30etan "The Ukrainians" Musakolako kiroldegian.

**ANDALUZIAREN EGUNA**

**Martxoaren 4an Musakolako kiroldegian goizeko 11.30etatik gaueko 12etara.**

**4 LARUNBATA**

**ZINEA**  
 "Rio salvaje" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

**ANDALUZIAREN EGUNA**  
 Andaluziaren egunaren VI. ospa-  
 kizuna Musakolako kirold-  
 egian goizeko 11.30etatik  
 gaueko 12etara. Dantza  
 saioa, umeentzat jokuak,  
 Sevillana lehiaketa, herri  
 afaria, beste gauza batzuen  
 artean. Sarrera dohainik. Al-  
 Andalus taldeak antolatuta.

**MIMO SAIOA**  
 "Torny Show" arratsaldeko  
 7.30etan Gaztetxean.  
 8.30etan herri poteoa triki-  
 tilariet alaituta. Gauean afa-  
 ria. Emakumearen Asan-  
 bladak antolatuta.

**"LA TRAVIATA" OPERA**  
 "La Traviata" Amaia antzokian  
 arratsaldeko 7etan. Arrasa-  
 te Musikalek antolatuta.

**5 IGANDEA**

**ZINEA**  
 "Rio salvaje" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

**MENDI IRTEERA**  
 Udaltxera irteera goizeko  
 9.30etan Sebero Altube pla-  
 zatik. Emakumeen Asan-  
 bladak antolatuta.

**"OTELO" OPERA**  
 "Otelo" Amaia antzokian arra-  
 tsaldeko 6etan. Arrasate  
 Musikalek antolatuta.

**INAUGURAZIOA**  
 Aretxabaletako Ibarra futbol  
 zelaiaren inaugurazioa arra-  
 tsaldeko 4.30etan. Inaugu-  
 razio ekitaldian UDAK eta  
 Eskoriatzako neurtuko dituz-  
 te indarrak.

**MENDI IRTEERA**

Besaideko mendiko eski tal-  
 deak trabesia antolatu du  
 Vall D'Arannen martxoaren  
 11 eta 12an. Beharrezkoa:  
 federatuta egotea, mendi-  
 ko eskirako materiala edu-  
 kitztea eta piolet eta kran-  
 poiak izatea. Izenematea:  
 martxoaren 7 eta 8an,  
 7.30etatik 8.30etara Besai-  
 deren egoitzan.





**6 ASTELEHENA****ZINEA**

"Rio salvaje" 7etan eta 9.30etan.

**HITZALDIA**

Gaia: "Emakumeok eta botere harremanak". Hizlaria: Carmen Elejabeitia. Monterronen arratsaldeko 7etan. Emakumeen Asanbladak antolatuta.

**7 ASTEARTEA****ZINEA**

"Rio salvaje" 7etan eta 9.30etan.

**HITZALDIA**

Gaia: "Musika Euskal Herrian eta kulturaren". Hizlaria: Juan Arzamendi. Monterronen arratsaldeko 4.30etan. Jubilatuen etxeek antolatuta.

**KAFE TERTULIA**

Gaia: "Gu geu". Arratsaldeko 7etan Iratin. Emakumeen Asanbladak antolatuta.

**EMAKUMEARI BURUZKO SAIO BEREZIA ATBn**

Gaueko 9.30etatik aurrera emakumeari buruzko saioa ATBn. Aurkezlea: Arantza Loidi. Gonbidatuak: Kontxi Berezibar, Garbiñe Txintxurreta, Rosa Larrañaga eta Joxepa.

**8 ASTEAZKENA****"EMAKUME LANGILEAREN NAZIOARTEKO EGUNA"**

Hitzaldia: "Pobreziak emakume izena dauka". Hizlaria: M. Karmen Zubillaga. Santa Teresa 12an, arratsaldeko 4retan. Manifestazioa Sebero Altubetik arratsaldeko 7.30etan. Afari-jaia gaueko 9etan Muxibar tabernan. Gaueko 9etan kontzertu sorpresa Gaztetxean. 10etan kabaret-jaia Jai-Zale elkartean. Emakumeen Asanbladak antolatuta.

**9 OSTEGUNA****HITZALDIA**


Gaia: "Feminismoaren historia". Hizlaria: Begoña Muruaga. Pablo Uranga, 4-behea arratsaldeko 6etan. Emakumeen Asanbladak antolatuta.

**ZINE KLUBA**

Gaueko 9.30etan "Orlando" filmea Amaia antzokian. Sarre-  
ra: 300 pta. 250 Gazte Txartelarekin.

**ERAKUSKETA**

"Txontxongilo artegintza" erakusketa Harresi aretoan martxoaren 17ra arte. Egilea: Corrado Masacci. Orduetgia: egunero 6etatik 8ak arte eta larunbat eta jai egunetan 12etatik 2ak arte eta arratsaldez 6etatik 8ak arte.

**KIROL IKASTAROAK**

"Euskal pilota joku zaharren ezagutza" ikastaroa Musakolako kiroldegian martxoaren 11, 18 eta 25ean, goizeko 10etatik 12.30etara. Prezioa: 3.000 pta. Deba Garaikoentzat, 4.000 pta. ez direnentzat. Squash ikastaroak hastapen maila martxoaren 6, 8, 9 eta 10ean kiroldegian. Orduetgia: arratsaldeko 7etatik 8etara eta 8etatik 9ak arte. Prezioa: 500 pta. Deba Garaikoentzat, 800 pta. kanpotarrentzat. Patinaje ikastaroa martxoaren 4 eta 18an Aretxabaletako kirol-etxean, goizeko 9etatik 2ak arte. Prezioa: 1.400 pta. Deba Garaikoentzat, 1.800 ez direnentzat.

**ARGAZKIGINTZA IKASTAROA**

Hastapen maila martxoaren 7tik apirilaren 5era, astearte eta asteazkenetan. Orduetgia: arratsaldeko 6.30etatik 8.30ak arte, ASA taldearen lokalean. Matrikula: 3.000 pta., ikasle eta langabetuentzat 1.500 pta. Sakontze maila, maitzaren 8tik 25era, arratsaldeko 7.15etatik 9.15etara, ASArekin lokalean. Prezioa: 3.500 pta. eta 2.000 pta. ikasle eta langabetuentzat.

**ERAKUSKETA****EUSKAL HERRIKO SOINU TRESNAK**

LORENTXO ALTUBE



- kutxa fundazioa
- fundación kutxa
- gipuzkoar donostia kutxaren
- gipuzkoar-ekiniza
- obra social
- de la caja gipuzkoar san sebastián

**ERAKUSKETA**

"Euskal Herriko soinu tresnen" erakusketa martxoaren 7tik 16ra bitartean Monterronen. Egilea: Lorentxo Altube. Orduetgia: egunero 6etatik 8etara eta larunbat eta jai egunetan goizez 12etatik 2etara eta arratsaldez 6etatik 8ak arte.



“Zortzi langilerekin hasi ginen eta orain Arrasateko tailerrean 44 gabiltza. Josi izan ezik, bertan egiten dugu dena. (...)”

Batez ere Espainian saltzen dugu, eta iparraldean nagusiki: Katalunia, Euskadi, Kantabria, Galizia... Orain Kanadan fabrikatu eta komertzializatzeko baimena lortu dugu eta, horrez gain, Irlandan, Erresuma Batua, Beneluxen, Frantzia, Suedian...saltzen ari gara. Gure produktua kalitatezkoa da, horregatik prezioa erdi edo goi-mailakoa da. Produktu onak egiten dituzunean, beti izango dituzu bezeroak. (...)

Leintz bailaran eta, oro har, Gipuzkoan ehungintzak ez du sustrairik. Hemen aitzindari izan gara”.

**Esteban Uribealgo** 95-II-26  
Import Arrasateko gerentea

**ARGIA**

“Maitasun gutunak idazteko ez da beharrezkoa maitemindurik egotea. Kontua boligrafoa eta papera hartu eta idazten jartzea da. Maiteminduta dagoen jende askok ez ditu maitasun gutunak idatziko eta, aldiz, maiteminduta ez dagoenak idatzi egingo ditu”.

**Maidar Osa** 95-II-24  
Berrigararen Amodiozko Gutunen  
Lehiaketaren irabazlea

**egin**

“Nahiko begibistakoa da ez dugula jatetxea negozioa egiteko asmoarekin ipini; bestela, jakina, sukaldea askoz ere txikiagoa egingo genukeen, eta alderantziz, askoz ere mahai gehiago jarriko genituzkeen. Jatetxe hau, berriro diot, tailer bat da, Ostalaritza Eskolako tailerra, bertako ikasleek formakuntza hobea lortu ahal izan dezaten. Bide batez, gainera, jatetxe honek, ikastaro berriak antolatzeke aukera emango ditu: tabernari titulua eskuratzeko ikastaroa, adibidez”.

**Niko Uribarren** 95eko otsailean KONTZEJUPETIK  
Oñatiko Ostalaritza Eskolako  
jaketxearen arduraduna.

## Zelan doa emakumearen egoera aztertzea helburu duen ikerketa?

Dagoeneko hainbat inkesta egin dugu. Gutxigorabehera, 130 emakumek erantzun diete ikerketa egiteko prestatu ditugun galderei baina denera 300 emakumerengana zuzenduko garenez, oraindik beste hainbeste inkesta egitea falta zaigu. Orain arte gainera, erantzuna ona izan dela esan dezakegu, hau da, oso emakume gutxi eman digute ezetza inkestari erantzuteko eskatzean.



**Goizane Larrañaga**

*Ikerketaren arduraduna*

Azterketa honen helburua Arrasateko emakumearen egoera eta ezaugarri sozio-ekonomikoak buruzko datuak biltzea eta emakumeen premia eta asmoak ezagutzeko da. Ekintza puntualak egin dira orain arte, baina emakumearen beharrak zeintzuk diren jakin barik. Ikerketaren emaitzak ezagututa eta emakumearen beharrak zeintzuk diren jakinda, programa bereziak antolatu eta hutsune horiek betetzen ahalginduko gara. Herrian ez da emakumeari buruzko ikerketarik egin eta horregatik, errealitatea neurtzeko datuak izatea garrantzitsua dela uste dugu.

Ikerketarako egiten ari garen inkestak, 16 eta 65 urte bitarteko emakumeen erantzunak jasotzen ditu eta zehazki, honako gaiak buruzko galderak egiten ditugu: ezaugarri sozio-ekonomikoak, hezkuntzari buruzkoak, emakumearen partaidetza lan munduan, familia eta elkarbizitza, denbora libre eta emakumearen diskriminazioa. Bukatzeko esan ikerketa hiru zatitan banatu dugula: hiri barnea, inguruak eta auzoak. Era horretan, auzo desberdinetan bizi diren emakumeen beharrak zeintzuk diren jakin nahi dugu.

# LANDALUZE HARATEGIA



*Arrasaten Euskal Kalitate Labeldun okela saltzaile bakarra.*

*TXAHAL OKELAZ gain orain*

*IDI OKELA ere*

*Euskal Kalitate Labelarekin.*

**Iturriotz, 7**

**ARRASATE**

**☎: 79 14 86**



**MCCren VI. Kongresua**

Joan zen ostiralean, hilaren 24an, MCCren VI. Kongresua egin zen. Kongresu horretan erabaki zenez, hemendik aurrera 650 ordezkari izango dute kongresuetan parte hartzeko aukera (lehen 370 zeuden). Gainera, lau urtean behin egingo dira kongresuak baina gai arrunten gainean erabakitzeko, urtean behin egingo da ordezkarien batzarra.



**Ikasle egoitza Nagusi**

Joan zen ostegunean, hilaren 23an, EHUk Ikasle-egoitza Nagusi izendatu zuen Biteri egoitza. Izendapen ekitaldian EHUko eta Eskola Politeknikoko hainbat arduradun izan zen: Juan Jose Goiriena, EHUko errektorea eta Jose Ignacio Lakunza, Eskola Politeknikoaren zuzendaria, besteren artean. Horietaz gain, Maria Jesus Aranburu, Kultura Diputatua eta beste ikasle-egoitza nagusi batzuetako ordezkariak ere etorri ziren.

**Super 1**

“Super 1 Ihauteri Festa“ ospatu zuten Arrasateko umeek joan zen zapatuan. Kiroldegira Super1 programako protagonistak hurbildu zirela eta, ederto pasatu zuten umeek. Aurkezle lanak Jon Anduezak egin zituen eta Txatxilipurdik ere hainbat ekintza antolatu zituen.

**Pirata jaia**

Pirata jaia egin zen Gaztetxean joan zen zapatuan; hori dela eta, pirata jantzita hurbildu zen hainbat lagun bertara. Ekintza mordoa izan zen: antzerkia, herri-bazkaria... Horrez gain, ostiral gauean Los Pichones eta SS 77 taldeen kontzertua egin zen. Bitxikeria moduan esan, Rip taldeko kantariak, Mahomak, eta Goikobaluko abeslari batzuk kanta bat kantatu zutela.

**6. Play-Back jaialdia**

Arrakastatsua baina akaso luzeegia izan zen zapatuan egin zen play-back jaialdia. Jendearen artean ikusmira sortzen duela eta, oraingoan ere bi emanaldi egin ziren eta bietara hurbildu zen jende ugari. Ekitaldiaren hasieran, poesia bat irakurri zuten joan zen astean hil zen eta hainbat play-back jaialditan parte hartu zuen Txomin Arrieta zenaren omenez.

Jaialdian hainbat kantari ezagunen kantak kantatu eta antzeztu ziren eta sketch batzuk ere egin ziren.



**Hitzaldia**

Ana Cristina Zabalak haratuzteen gainean hitzegin zuen asteazkenean Famili eta Gizarte Heziketarako zentruan. Zabalak Euskal Herriko haratuzteak izan zituen hizpide eta Zuberoako maskarada eta zanpantzarren zentzua azaldu zituen. Bestalde, haratuzteak erromatar garaitik datozela ere argitu zien zentzura hurbildu ziren emakumeei. Historialariaren berbetan, udaberriari ongi etorria emateko eta izpiritu txarrak uxatzeko ospatzen zuten jaia erromatarrek.

**Haratuzteak**

Eguraldi hotza baina eguzkitsua lagun, giro onean ospatu ziren Arrasaten haratuzteak. Arratsaldean hainbat ume urten zuen kalera mozorroturik eta gabean gazteek eta nagusiek bete zituzten kolorez herriko kaleak.

**JAIOTZAK**

- Peru Altube Cazalis. Otsailaren 19an.

**HILDAKOAK**

- Cruz Roman Gallastegi Inchausti. Otsailaren 19an. 74 urte.
- Florencia Benedo Rubio. 20an. 75 urte.
- Maria Teresa Paillole Yarza. 22an. 92 urte.
- Andres Ormazabal Arrizabalaga. 72 urte.
- Angela Carmona Sierra. 26an. 84 urte.
- Purificación Fereka Milikua. 26an. 94 urte.

**Onduline**

**TXOMIN HERIZ**



eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18  
**ARRASATE**

**OSORIK  
PUB**


Ignazio Zuluaga, 4  
**ARRASATE**

**Lore**  
*Lurrindegia*

Olarte kalea, 10 **ARRASATE**  
Tfnoa: 79 52 50



ARRASATE




la merced  
IKASTETXEA

☎ 79 20 92



**2** URTEREKIN ERE  
HEMEN NAHI ZAITUGU





Argazkian ageri den eraikinaren gainean jarriko da dorrea.

## 20 metroko dorrea jarriko du Telefonikak Zaldispe auzoan

Telefono mugikorren seinalea jaso eta banatzeko, 20 metroko luzera eta 80 zmk diametroa izango duen dorrea jasoko du Telefonikak Zaldispe auzoan duen eraikinaren gainean. Joan zen astelehenean, otsailaren 27an, egin zen gobernu batzordean hori jartzeko lizentzia eman zitzaionez, lehenbailehen jarriko du dorrea Telefonikak.

Azkenaldian, telefono mugikorren, hau da, autoetan edo aldean eramaten diren telefonoen eskaria ugartu egin delako jarriko dute dorre hori. Modu horretan, abonatu-

kopurua gehitu egingo da eta zerbitzuaren kalitatea ere hobetu egingo da. Orain arte, Murugainen dagoen dorretik zuzendu da telefono horien seinalea eta Murugaineko antenak zabalkunde handia hartzen duen arren, jende gehiagok izan dezan, eremua txikitu nahi da. Teknikoki esanda, zelulen akzioerradioa txikitu nahi da, zelulen kopurua gehitzeko.

Arrasaten ipiniko duten bezalako dorrea orain arte Lasarten bakarrik jarri dute baina Gipuzkoako beste herri batzuetan ere jartzeko asmoa dago.

## Córdoba y Oroko lorategiak

Córdoba y Oro kalean lorategiak kentzea erabaki du Arrasateko Udalak nahiz eta hor bizi diren bizilagunek ez kentzeko eskaria egin eta lorategiak euren zaindako dituztela agindu. Hala ere, hasiera batean egin zen proiektuarekin jarraituz, auzo horretako lorategiak kendu egingo dira.

## UGT egoitza berrian

UGT sindikatuak egoitza berria estreinatu du aste honetan. Egoitza hori Garibai kaleko 6. zenbakian dago, lehen Roneo lantegia zegoen tokian, eta 150 m2 ditu.

Orain arte, PSE-EEren egoitzaren ondoan izan da UGTrena eta gobernuan egotea eta sindikalismoan aritzea gauza desberdinak direla uste dutelako erabaki dute egoitzak banatzea. Egoitza berriaren inaugurazioa hilabete honetan egitea espero dute UGTko arduradunek baina oraindik noiz izango den eta inauguraziora nor etorriko den zehaztu barik dute.



# LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



# Eroskik erosi du Roneoren lantegi zaharra

Eroski kooperatibak erosi du Arrasateko Maxi Eroskiren ondoan dagoen Roneoren lantegi zaharra. Asteazkenean, martxoaren leian, salmenta ziurtatzen duen agiria sinatu zen eta modu horretan, oraingo supermerkatua handitzeko proiektua lantzen hasiko da Eroski eta gero Eusko Jaurlaritzara aurkeztuko du bere oniritzia eman dezan.

Orain dagoen Maxia Arrasate eta inguruko bizilagunentzat txiki geratu delako erosi du Eroskik Roneoren lantegi zaharra. Hala ere, oraindik zehaztu barik dago Maxia zelan handituko den, hau da, erosi berri duten orubean berria eraikiko ote duten ala dagoena handituko duten. Ziur dagoena, berriz, zera da: eraikin berria ez dela Eroskiren supermerkatua bakarrik egongo. Lantegiak 5.580 m<sup>2</sup> ditue-



Merkatal zentru handi bat eraikitzea da asmoa.

nez, eskualdeko merkatarietara jartzeko aukera eman nahi die Eroskik eta horrela, merkatal zentru handi bat eraikiko litzateke.

Zigarrolako Roneoren orubearen enpresa jabea Viuc S.A. izan da baina proiektuaren gestioa Anboto in-

mobiliariak eraman du. Erosketaren kostua zenbatekoa izan den, berriz, ez dute argitu nahi izan Eroskiren arduradunek.

Zigarrolako Roneo lantegia Ricardo Olanan arkitekto

eta injineru arrasatear ezagunak eraiki zuen 1964an. Eraikuntza aldetik duen ezaugarriengatik lantegiak nazioarteko sari ugari jaso du baina seguruenik eraikina bota egingo da oso egoera txarrean eta zahartuta dagoelako.

## BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

### Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18



# Txatxilipurdiren lehen Batzar Orokorra

Datorren asteartean, hilaren 7an, lehenengo Batzar Orokorra egingo du Txatxilipurdi elkarteak. Batzarrean iazko urtearen balorazioa egingo da eta Zuzendaritza Batzordea berrituko da. Horrez gain, 95erako aurrekontuak ere onartuko dira, beste gai batzuen artean.

Txatxilipurdiren arduradunen esanetan, iazko urtea ondo joan zen elkarte ofizialki eratu zelako eta lan esparrua zabaldu zutelako. Iazko udazkenetik Oñatiko gaztelekuaren dinamizazioaz arduratzen da Arrasateko Txatxilipurdi elkarte eta Ludotekaren antolatu zen erakusketa ere beste herri batzuetan izan da ikusgai. Aurtengo urteari begira, berriz, kalitateko ekintzak antolatzen jarraitu, euskararen erabilera aisialdiaren bitartez egoki bultzatzeko metodologia ikertu eta aisialdi eta euskararen ihardunaldiak antolatzeko asmoa dutela aurreratu dute Txatxilipurdiko arduradunek. Batzar Orokorra hilaren 7an izango da Montterronen arratsaldeko 7etan.



Umeendako ekintzak antolatzen ditu Txatxilipurdik.

## IU-ko zerrendaburuak


- Izquierda Unida edo Ezker Batua alderdia, udal hauteskundeetan aurkeztuko duen zerrenda prestatzen hasi da.
- Alkategia Joseba Ugalde izango da. Josebak 43 urte ditu eta Fagorrekoko Kontseilu Sozialeko presidentea da. Bigarrena Angel Pijero izango da. Pijerok 40 urte ditu eta Fagorrekoko langilea da. Hirugarrena, laugarrena eta bostgarrena zeintzuk izango diren, berriz, ostegunean zehaztu behar zuten.

## Matrikulazioa



Ikastetxe publikoetan matrikulatzeko kanpaina zabalik izango da martxoaren 15era arte. Umea eskola publikoetan matrikulatu nahi dutenek ikastetxeetara zuzendu beharko dira.

# NEREA

ARRASATE




**Bainujantzi eta barne-erropatan eskaintzarik zabalena emateko berritua.**







**Haratuzteetako martitzenean txiki eta handik lotsa alde batera utzi, mozo-  
roa jantzi eta primeran pasa zuten haratuzteetako egun magikoan. Kale-  
etan pailasoak, indioak, bakeroak, katutxoak, erleak, eskaleak, presoak eta batez ere, banpiroak, denetik ikus-  
teko aukera izan genuen. Haratuzte-  
ak ohizko itxura aldatzeko urteko egunik aproposena.**







● Haratuzteetako mozoen sari banaketan, **“suhiltzaileek”** jaso dute taldeko mozorrorik onenaren saria, 30.000 pta. Bikoteko mozorrorik onena **“Chulapo”** madrildarrentzat izan zen, 10.000 pta. **“Lazarilloa”** izan da, ostera, banakako mozorrorik onena eta 5.000 ptako saria eskuratu du.

● Branka Eskubaloi Rugby Elkartek bi sari banatu zituen. Bata, Kanariar Irletara bidaiaria, **Juan Trujillo “andra mexikar”** jantziarekin irabazi du eta bestea, bi botila txanpan, **“behi mozorrok”** batek jaso du. Haren morrozak!







\* MALEN ERRASTI

## 1995eko martxoaren 8a Erasoak emakumeei: sexismoa errudun

**Erasoen**, biolentzia sexistaren, aurkako borroka oso lanardatz garrantzitsua izan da mugimendu feministarentzat.


Egia da gizartearen aldaketak egon direla azken urteetan eta guk parte hartu dugula hori horrela izan dadin. Hau da, arazoaren kontzientzia handiagoa sortzen saiatu gara, erasoen izaera politikoa eta ez pribatua errebindikatuz, instituzioei zerbitzu bereziak sortzeko eta legeak aldatzeko exigituz eta abar.

Hala eta guztiz ere, ez da aldaketa sakonik izan emakumeok jasaten dugun biolentzi egoeran. Salaketen eta erasotzaileen eskuetan hildako emakumeen kopurua (urtean 80) ez da aldatu, esateko, azken urteetan.

Gaur egun asko hitzegtzen da berdintasunaz, hau da, emakumezkoak eskubide berberak ditugula, legeetan ez dagoela diskriminaziorik eta antzekoak esaten dira.

Ugari dira etxean tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeak, hots, egunero senar edo lagunarengandik irainak, belarrondokoak eta egurra jasotzen dutenak. Kasu gehienetan tratu txar horiek isilean jasaten dituzte; hortaz ezkutuaren geratzen dira, familia edo etxeko harremanen esparrutik kanpo atera gabe.

Sexu-erasoak eta bortxaketak izaten dituzten emakumeak ere asko dira. Sexu-erasoak, bortxaketak, kalean, etxeetan, enpresetan, komisaldegiatan... gertatzen dira. Oso gizon ezberdinek buru-



*“Arazoaren  
kontzientzia  
sortzen saiatu  
gara”.*

tzen dituzte eta horietako askok aurrez ezagutzen dute biktima, besterik pentsatzen den arren.

Hain baldintza eta egoera desberdineko sexu-erasotzaileak eta bortxatzaileak egoteko arrazoia emakumezko eta gizonezkoen artean dagoen ezberdintasun sozial sakona eta horrek dakarren misoginia matxista (emakumeenganako mesprezua) da.

Emakumezkoak ukitzen gaituzten gai batzuk, esate baterako, sexu-erasoak, ezin dira lege, politika eta antzekoen bidez “konpondu”. Hortaz, garrantzitsua da emakumezkoak eta borroka feminista antolatzea sexu-biolentziaren aurka borrokatzeko; izan ere, behar-beharrezkoa da pertsonok portaera aldatzea, mentalitatea eta balore-sistema aldatzea. Lanean jarraitu behar dugu emakumeak tratatu txarren aurrean makur ez daitezen, beren burua balora eta maita dezaten eta senarraren, senar-ohien eta lagunen biolentziari aurpegia eman diezaioten.

Garrantzitsua da, halaber, lanean jarraitzea erasorik ez jasotzeko eta gure osotasun fisikoa ez mintzeko dugun eskubidea defendatzeko; gure sexu-askatasuna defendatzeko, hau da, izan nahi ditugun sexu-harremanak soilik izateko; emakumeak ez dezan lotsaz bizi jasan duen bortxaketa eta inolaz ere ez daitezen horren errudun sentitu.

\* ARRASATEKO  
EMAKUMEEN ASANBLADAKO  
KIDEA

## USTEAK USTE

### ESKOLA

**Joan zen astean EPPren Biteri egoitza Ikasle-egoitza Nagusi izendatu zuten. 320 “kanpotar” bizi dira bertan; beste hainbat, etxebizitza partikularretan daude. Inguruko herrietako eta Arrasateko ikasleekin batera, makina bat gazte dira mundu osoan ezaguna den kooperatibismoaren bihotzean sortutako eskolan ikasten; pertsonalitate berezia duen unibertsitatean alegia. Igartzen al zaio, ordea, hemendik irten-dako ingeniariari kooperatibismoari buruzko ezaupide edota inpronta berezirik? Erreflexio gisa, horrelako helburu baten aurrean hemen hurbilean ditugun bi modelo aipatuko ditut. Bata EPP-koa, “laissez faire” antzerako bat; zeinetan (aurreko batetan bertako zuzendariak zioenez) kooperatibismoa eguneroko esperientziaren bitartez erakusten ahalegintzen baitiren. Beste muturrean berriz, nahiz eta instituzio erlijioso batean izan, ez du pertsonarengan horrelako konfidantzarik erakusten eta horregatik, teologia, asinatura lez daukate (Donostiako Opus-eko ingeniari-tzan). Tarteko biderik izango da...**

ANDER ETXEBARRIA

**MILARIOX**

**Taberna-jatetxea  
Kafetegia**

- Eguneroko menua eta kartako menua
- Bazkari azkarrak, pizzak, hanburgesak, sandwichak,...

Prezio guztiz eskuragarriak!!

Larrea enparantza, 5 behea Tfnoa: 77 01 69

**“PAL”**

**burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria**

Uribarri etorbidea 3,  
Tfnoa: 79 31 99

**GORKA**

**ILEAPAINDEGIA**


**SOLARIUMA**

Ferrerias, 35 ARRASATE  
Tfnoa: 77 13 78



# ZALDIBAR ZALDIBAR Futbito 94-95 Txapelketa

Babesleak: JMA, KajoI taberna eta Arrasate Kirolak



## Perrahotsa ala Frantziskanner, hor dago kozka

Azken jardunaldian hiru partidu jokatzeke geratu ziren, antolatzaileak lokartu egin ziren eta. Partidu erabakiorrak gainera. Pepelus eta Anbotosteren artekoa ez zen jokatu eta ez da jokatuko ere. Anbotostekoak datorren asteburuan eskiatzera joatekoak dira eta Pepelusekoekin adostasun batera heldu dira Pepelusi neurketa irabazita emateko. Egia esateko, Anbotostek ez zuen sailkatzeko aukerarik eta Pepelus, dagoeneko, sailkatuta dago. MSM Ingenieria integralek eta Ojo Avisorek jokatu behar zuten partidua zapatuan izango da

eguerdiko 12etan. Talde biak sailkatuta daudenez, tramite hutsezkoa izango da. Perrahotsak eta Artzankos Udalaitzek elkarren kontra neurtuko dituzte indarrak zapatuan arratsaldeko 4retan eta neurketa horretan lortzen den emaitzaren arabera, Perrahotsa edo Frantziskanner sailkatuko da bigarren faserako. Perrahotsak irabaziko balu, bigarren fasean sartuko litzateke; berdindu edo galduz gero, ostera, Frantziskanerek lortuko luke bigarren faserako txartela. Partidu baten gorabeheran, beraz, bi taldeon jarraipena.



**Felipe  
Arrizabalaga  
AROSZTEGIA**

- SUKALDE-ALTZARIAK
- SARRERAKO ETA BARRURAKO ATEAK
- ARMAIRU ENPOTRATUAK ATE KORRIGARRIEKIN

Legarre pabiloia, ARRASATE Tfnoa: 79 22 76



**Arbitraiak**

partiduak <b>A</b> taldea	partiduak <b>B</b> taldea	partiduak <b>C</b> taldea	partiduak <b>D</b> taldea
11 PARTIDU: FOSFOROS FRAGUEL GOL	11 PARTIDU: BER. SUKALDEA DANOK LAGUN LOS DIMY PETROLEROS	10 PARTIDU: AUTOS MURU BANEUKO TXOKO TABERNA D.K.B EQUUS EXCA. LETE JOTAKABAU	10 PARTIDU: BZ SISTEMAS LAUTHERBRUNEN LOS HEREDIA MSM INGENIER OJO AVISORE SOKOAKOAK
10 PARTIDU: ADELAIDA-HAIZEA BAYER LEINTZ HIREI KRISKIBALDA	8 PARTIDU: ANBOTOSTE EZK. HONTZAK ORKATZ PEPELUS PUB PEOPLE TOTEM TOVARIXTX TRIKITI TXEYENEX	9 PARTIDU: FRANTZISKANER IRATI STS KOKA JUNIOR NABARROS ORLANDO PIRATAS PERRAHOTSA POTROSORRI	9 PARTIDU: AC SURCOS ARGI IBILI D. A IRIZTU ELISABETH MIKELOS TEODOLITO
9 PARTIDU: ARRASATE KIROLAK ASTOEN VILLA ATERPE CERVECERIA LEINTZ EZTANDA EGIN ARTE GANBELAS ILUNA TABERNA INSERT COIN STRAUSS ZOTZ	10 PARTIDU: GAINONTZEKO TALDEEK	8 PARTIDU: ARTZANKOS KE OXTIAS LEYA LORATEGI POTROAK	8 PARTIDU: BORROCK'N ROLL MOTZ SUKAR TRONKOTEAK
8 PARTIDU: BUKANAK ZULOAK			

**Talde bakoitzak Zaldibarren epaitu dituen partiduak.**

partiduak <b>A</b> taldea	partiduak <b>B</b> taldea	partiduak <b>C</b> taldea	partiduak <b>D</b> taldea
10 PARTIDU: ATERPE FOSFOROS GANBELAS KISKIBALDA	12 PARTIDU: TXEYENEX	10 PARTIDU: POTROSORRI	11 PARTIDU: OJO AVISORE
9 PARTIDU: ADEL.-HAIZEA CERV. LEINTZ HIREI INSERT COIN STRAUSS ZULOAK	11 PARTIDU: PETROLEROS PUB PEOPLE SUM UGARTE TOTEM	9 PARTIDU: BANEUKO IRATI STS JOTAKABAU KAKAJAURI	10 PARTIDU: ELISABETH MIKELOS MSM INGENIER
8 PARTIDU: ARRAS. KIROLAK BAYER LEINTZ EZT. EGIN ARTE FRAGUEL GOL	10 PARTIDU: TRIKITI	8 PARTIDU: ARTZANKOS AUTOS MURU D.K.B EQUUS EXC. LETE KE OXTIAS LORATEGI POTROAK NABARROS ORLANDO PIRATAS PERRAHOTSA	9 PARTIDU: ARGIBILI BORROCK'N ROLL LAUTHERBRUNEN LOS HEREDIA SOKOAKOAK
7 PARTIDU: ASTOEN VILLA BUKANAK ILUNA TAB. ZOTZ	9 PARTIDU: BERANGO SUK NO COMMENT	7 PARTIDU: TXOKO TABERNA FRANTZISKANNER LEYA	8 PARTIDU: AC SURCOS D.A IRIZTU SUKAR TEODOLITO
	8 PARTIDU: ANBOTOSTE NUEBO TABERNA LA BANDA LOS DIMY ORKATZ PEPELUS TOVARIXTX UGLYS TXINATO		7 PARTIDU: BZ SISTEMAS MOTZ TRONKOTEAK
	7 PARTIDU: DANOK LAGUN EZK. HONTZAK MONTERREY TAB.		



**URONDO**  
elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE





**URIBE AUZOA  
TXAPELKETA**

**Uribe Auzoa txapelketa martxoan hasiko da eta bertan parte hartu nahi dutenek martxoaren 8 eta 9an eman dezakete izena Monterronen, arratsaldeko 7etatik 8.15etara. Izenemateaz gain 8.000 pta. ordaindu beharko dira.**

**BELARRIRA**

◆ **Zigorra.** Monterrey taldea kanporatua izan da ez delako lehen faseko azken jardunaldira aurkeztu. B taldeko azken sailkatua zenez, ez da harrizkoa ez aurkeztea.

◆ **Puntu bi gutxiago.** Teodolitok bi puntu gutxiago ditu, ez zuelako Uglis Txinato eta La Bandaren arteko neurketa arbitratu.

◆ **Zozketa noiz.** Joan zen astelehenean bilera egin zuten Zaldibarko antolatzaile zein jokalariek bigarren faseko arauak zehaztu eta zozketa egiteko. Zozketa, baina, ez zen egin bi partidu jokatzeko daudelako eta talde horiei abantailarik ez emateko. Zozketa datorren astelehenean egingo da MondraSport kirol saioan.

◆ **Golak.** Azken jardunaldian 246 gol sartu dira guztira. Taldez talde: A taldean 76 gol sartu dira, Bn 65, C taldean 54 gol eta Dn 51. Gol gehien Nuevo tabernak sartu du, hamaika eta gero Fosforosek, hamar.

**ZIGORRAK  
LEHEN FASEKO ZIGOR GUZTIAK.**

**A taldea**

- 2. **jardunaldia-** Fosforos taldeko Candi Fernandezek bi partiduko zigorra.
- 6. **jardunaldia-** Arrasate Kirolak taldeko Isaias Carrascok partidu bateko zigorra.
- 12. **jardunaldia-** Faguel Goekl bi puntu gutxiago ez epaitzeagatik.
- 17. **jardunaldia-** Los Dalton eta Salenco y konpañia kanporatuta ez aurkezteagatik.

**B taldea**

- Lehen **jardunaldia-** Orkatzek bi puntu gutxiago.
- 2. **jardunaldia-** Arrasate Zook bi puntu gutxiago.
- 8. **jardunaldia-** No Comment taldeko Eneko Bellidok bi partiduko zigorra.
- 18. **jardunaldia-** Danok Lagunek bi puntu gutxiago
- 19. **jardunaldia-** Monterrey kanporatuta aurkeztu ez zelako.

**C taldea**

- 4. **jardunaldia-** Lorategi Potroak taldeko Aitor Gaztañagari bi partiduko zigorra.
- 10. **jardunaldia-** Koka Juniorsek bi puntu gutxiago.
- 12. **jardunaldia-** Bodisca eta Foto Imagen kanporatuak ez aurkezteagatik.

**D taldea**

- 11. **jardunaldia-** Anorthosis Agudah kanporatuta aurkeztu ez zelako.
- 15. **jardunaldia-** Lautherbrunenek eta Borrock'n Rollek inpugnazioa.
- 17. **jardunaldia-** Altza Porrak bi puntu gutxiago
- 18. **jardunaldia-** Altza Porru eta Kakajauri kanporatuta
- 19. **jardunaldia-** Teodolitok bi puntu gutxiago.

# San Martin Osasundegia

**DERMATOLOGIA  
UNITATEA**

Garciandia Doktorea

**PATOLOGIA DIGESTIBOEN  
UNITATEA**

Otazua Doktorea

**OBSTETRIZIA ETA  
GINEKOLOGIA UNITATEA**  
Serrano Doktorea

**PSIKOLOGIA  
UNITATEA**  
J.R. Fernandez

**ZIRUGIA UNITATEA**  
Alberro Doktorea

Ramon María Lili, 2 BERGARA • Tfnoa: 76 59 39/72 • Faxa: 76 25 72



**ASTEBURU HONETAKO EMAITZAK**

**A taldea**

Fraguel gol 1 - Zuloak 5  
 Hirei 3 - Arrasate Kirolak 2  
 Zotz 3 - Eztanda egin arte 3  
 Cerveceria Leintz 2 - Adelaida-haizea 2  
 Iluna Taberna 6 - Insert Coin 8  
 Strauss 1 - Ganbelas 9  
 Bayer Leintz 1 - Los Dalton 0  
 Kriskibalda 4 - Fosforos 10  
 Astoen Villa 1 - Salenco y Konpañia 0  
 Bukanak 8 - Aterpe 7

**B taldea**

Totem 2 - Pub People 4  
 Sum. Ugarte 7 - Trikiti 3  
 Txeyenex 3 - Nuevo taberna 11  
 Uglus Txinato 2 - La Banda 5  
 Ezkiñako hontzak 3 - Danok lagun 3  
 Monterrey Taberna 0 Tovarixtx 1  
 Los Dimy 3 - Arrasate Zoo 1  
 Petroleros 7 - No Comment 3  
 Orkatz 5 - Berango Sukaldeak 5

**C taldea**

Baneuko 1 - Foto Imagen 0  
 Orlando piratas 7 - Koka Juniors 4  
 Irati STS 3 - Frantziskener 4  
 Equis 2 - Jotakabau 1  
 Potrosorri 4 - Txoko taberna 3  
 Autos Muru 4 - Exc. lete 3  
 D.K.B. 3 - Leya 8  
 Nabarros 1 - Bodisca 0  
 Lorategi Potroak 3 - Ke Oxtias 3

**D taldea**

Resakas 0 - Sukar 1  
 Mikelos 3 - Argi Ibili 6  
 Kakajauri 0 - Lautherbrunnen 1  
 Motz 4 - A.C Surcos 9  
 Borrock 'N Roll 7 - Teodolito 4  
 D. A Iriztu 3 - B.Z Sistemas 3  
 Sokoakoak 2 - Los Heredia 1  
 Elisabeth 4 - Tronkoteak 3



**Zaldibarkoek, atsedena astebukaeran**

**Adelaida** Haizea, Fosforos, Zuloak, Zotz, Bukanak, Cerveceria Leintz, Ganbelas eta Hirei dira A multzoan sailkatu diren taldeak. Nuevo Taberna, Trikiti, Suministros Ugarte, Totem, Pepelus, Pub People, Petroleros eta Los Dimy ditugu B taldean. C taldean, zazpi talde daude bigarren fasean dagoeneko: Irati STS, Equis, Lorategi Potroak, Autos Muru, Artzankos, Orlando Piratas eta Ke Oxtias. Zortzigarren tokia Perrahotsa eta Frantziskanneren artean dago. Azken multzoan kontua erabakita dago eta sailkatutako taldeak hauek dira: Argi Ibili, AC Surcos, MSM Ingenieria Integral, Los Heredia, Ojo

Avisore, D. A. Iriztu, Mikelos eta Sokoakoak.

Azken jardunaldiak ere eman du berbalekua. Batetik, eta prebisio guztiak apurtuz, Tronkoteakek galdu egin zuen Elisabethen kontra 3 eta 4 eta ondorioz ez da sailkatu. Bestetik, Sokoakoak eta Los Herediak elkarren kontra jokatu zuten igandean ordu batean. Los Heredias sailkatuta zegoen eta Sokoakoak sailkatzeko neurketa irabaztea baino ez zeukaten, eta partidua 2 eta 1 bukatu zen Sokoakoen alde. Aurretik erabakita izango zuten emaitza?, ez zuten zuzen jokatu bi taldeek? Argituko ez diren galderak.

**VE ECUADOR**

**Bidaiak**

**Bidaia zoragarri bat irabazi nahi baduzu, har ezazu parte ATBketan lehiaketan Ez galdu aukera!**

Kontzeziño, 2  
 ARRASATE  
 Tfnoa: 79 14 06



**Kalitate gorena leihoretan**

**LANTEGIA ETA ERAKUSKETA**

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE



LABURRAK

**Taila ikastaroa**

Arrasateko Tailaginen Elkarteak taila ikastaroa antolatu du Arrasateko Udalaren laguntzarekin. Ikastaroa Uruburu kaleko tailerrean izango da martxoaren 6tik aurrera eta 30 orduko iraupena izango du: astean 4 egunetan eta egunetan 2 orduz.

Ikastaroa tailagintzan sekula aritu ez direnei dago zuzenduta. Ikasle kopurua mugatua izango denez, lehen bait lehen eman behar da izena. Argibide gehiagorako eta izena emateko, 794079 eta 796764 telefonoetara deitu.

**"Folk asteburua 95"**

Arrasateko Udalak "Folk asteburua 95" antolatu du martxoaren 10etik 12ra bitartean. Atzerriko eta estatuko hamar folk talde etorriko dira gurera: "The Hackney Ramblers", "La cucina", "Pentangle", "Liberty Cage", "El Bosque", "Oyster Band", "Rock Salt & Nails", "Na Lua", "Nuevo Mester de Juglaria" eta "The Ukrainians". Emanaldiak kalean eta Musakolako kiroldegian izango dira, zehazki, bi emanaldi Musakolako kiroldegian eta kalean gainontzekoak.

Z E R N A H I A G O ?

**Juan Pedro Mendizabal**

**"Madina" zurak dendakoa**

- Noiztik lan honetan? Duela 15 urtetik.
- Badago familiako ohiturarik? Bai, osaba batek jarri zuen martxan.
- Zenbat lagunek egiten duzue lan hemen? Zortzi pertsona inguruk.
- Zein egur mota erabiltzen duzue? Mota guztieta-koak, batez ere komertzialak.
- Noiz saltzen duzue gehien? Batez ere udaberri partean.
- Somatu duzu azken urteotako krisia? Bai, batez ere kobroetan.
- Zenbat ordu egiten dituzu lanean egunean? Bederatzi ordu t'erdia.
- Zura lantzeko ohiturak galdu egin dira? Bai, zeharo. Gauzak fabrikan eginda datoz orain.
- Arriskutsua da zuen lana? Batez ere eskuekin kontu handiaz ibili behar izaten dugu.
- Irakurtzen duzu ARRASATE PRESS? Bai, ahal dudanean behintzat.
- Irakurri duzun azken liburua? "Esperando un respiro".
- Zein telebista kate duzu gustokoen? "Canal Plus".
- Egin duzu soldaduzka? Ez, kupotik kanpo geratu nintzen, baina orain ez nuke egingo.
- Siestarik egiten duzu? Bai, eta bizioa bihur daitekeela pentsatzen dut.
- Herriko jairik gustokoenak? Maritxu Kajoi.
- Azkenaldian egin duzun bidaiarik luzeena? Azken bi urteetan Conil de la Fronterara joan naiz.
- Zerk hasarrarazten zaitu? Gauza askok, batez ere harrokeriak.
- Joango zinateke "Lo que necesitas es amor" programara zure bihotzeko neskarengatik? Ez, ez dut uste.
- Baduzu politikariengan konfidantzarik? Batzuegan, oraindik bai.
- Baduzu animaliarik etxean? Ez, txoriekin izandako esperientzia nahiko txarra izan zen.
- Ligatzeko ohiturak aldatu egin dira? Ez dakit, inoiz ez dut larregi ligatu.
- Aurten joan zara sagardotegira? Ez, ez zait sagardoa gehiegi gustatzen.
- Zer falta da Arrasaten? Gero eta gauza gehiago dago eta nahiko konformista naiz zentzu horretan.



HIZKUNTZ ARAZOAK  
 HIZKETA ARAZOAK  
 AHOTS ARAZOAK  
 IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK  
 Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.  
 Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

**Plus Ultra**  
 taberna  
 Maalako Errabala, 17  
 ARRASATE  
 Tfnoa: 79 20 57

● **Txitxinpe** ●  
 Bereztasunak:  
 Kafea, ardoa, urdaitegia,  
 fruitu lehorrak  
 Arrasate Pasealekua, 33  
 ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

**HIES EKIMENA**  
 Astelehen, astearte  
 eta ostiral  
 5etatik 8etara.  
 Tfnoa: 79 26 99

• Garbitasun orokorrak eta mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.  
 • Edozein zoru motari dizdira ateratzea.  
 Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIAMATZA

**ARRASATE**  
**HOTELA**  
  
 Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16



Biteri, Ikasle-egoitza Nagusi

# Ikasleak hazten eta hezten

Maidar Egües

**Biteri Egoitza, mondrauetar arruntarendako hain ezezaguna omen den egoitza, EHuko Ikasle-egoitza Nagusi bihurtu da orainago. Ezezaguna diogu, arrasatearrek erresidentzia horretan bizi diren ikasleekin sekula ez dutelako harreman handirik izan. Baina ez dago errurik, ezta errudunik ere. Bertako ikasleek eta herritarrek bizi izan duten errealitate hutsa besterik ez da izan.**

Ikasleek ere mondrauetarrena hurbiltzeko ahaleginik ez dutela egin onartzen dute. Dena dela, Ikasle-egoitza Nagusi izendapen horrekin, bertan antolatzen diren ekintzetan parte hartzeko ateak herri guztiari zabaldu nahi dizkiete ikasleek. Gizakia berez ezezagunak zaizkion tokietara hurbiltzen ez denez, ez litzateke soberan egongo Eskola Politeknikoan ikasten duten etorkizuneko injineru hauen eguneroko bizitza zelakoa den jakitea, azken finean, soilik astean zehar bada ere, Euskal Herri osotik eto-

rritako ikasle hauek, mondrauetar bihurtzen dira.

## BARNE-ANTOLAKETA


Biteri Ikasle-egoitza Nagusian 320 ikasle bizi dira astegunetan, horietatik 24 neska besterik ez dago. Orain arte, arautegiak horrela agintzen zuelako, egoitzan bizi ziren lagun guztiak Eskola Politeknikoko ikasleak izan behar ziren, baina Ikasle-egoitza Nagusi izendapenarekin, Eskola Politeknikoko ikasle ez direnak ere bizi ahal izango dira orain.

Egoitzan bizi direnak asko direnez, ardurak banatzea ezinbestekoa da. Ikasle guztiak lurraldeka daude banatuta. Guztira hamairu lurralde talde edo zona daude: "Araba", "Beasain-Lazkao-Ordizia", "Bilbo", "Donostia", "Durango", "Eibar-Elgoibar", "Goierni", "Kosta", "Lea Artibai-Busturialdea", "Mugaldia", "Nafarroa", "Tolosa" eta "Urola". Talde hauen banaketak ez du bertako ikasleak gela berean egon behar direnik esan nahi; banaketa honen helburua bilerak eta ekintzak antolatu eta koordinatzeko orduan taldeen osaketa erraztea da.

Egoitzako funtzionamenduak bestela, organigrama bati erantzuten dio: burua, egoitzako zuzendaria da eta honen azpian "Eskolako Kontseilua" dago. Kontseilu hau, zuzendariak, zonetako hiru arduradunek, Komisio Artistikoko arduradunak eta Kirol Komisioko arduradunak osatzen dute. Hauekin batera, baina beste maila batean, zu-

zendariari laguntzea helburu duten hiru monitoren beste talde bat osatzen dute. Guzti hauen azpian, zona bakoitzeko arduradunak, Aktibitate Artistikoko Komisioa, Kirol eta Kultura ekintzetako komisioa eta Funtzionamendu Komisioa daude.

Organigrama eta antolaketa honi esker, egoitzan bizi den lagun talde batek aktibitate edo talde bat sortu nahi duenean, aurrekontua eskatzen dio Eskola Politeknikoari eta honek, hurrengo urterako onartu edo gaitzestu egiten du. Taldea sortzen bada, ikasleen ardurapean geratzen da berorren funtzionamendua.



Ikasleak oso giro onean bizi dira Biteri egoitzan.

**ikasle-egoitza Nagusi izendapen horrekin, bertan antolatzen diren ekintzetan parte hartzeko ateak herri guztiari zabaldu nahi dizkiete ikasleek.**



Gaur egun egoitzen bizi direnak makina bat aktibitatean parte hartzeko aukera dute: Abesbatza, Antzerki Taldea, Musika Banda, Dantza Taldea, Argazkigintza, Modelismoa, Pirograbatua, Bideoa, Zurgintza Taldea eta Tuna. Aktibitate hauetan ez dago kanpoko irakaslerik; irakasleak ikasleak eurak dira. Talde hauetaz gain, beste aktibitate hauek egiteko aukera ere badute egoitzan bertan, gimnasioa, saloi-jokuak, Rol taldea, Audioteka Batzordea, Zine Batzordea, Batzorde Ekonomikoa, irratia, odol-emaleak, paper-erreziklatze taldea eta prentsa sala daude eta.

### AUTO-GESTIOA BULTZATU NAHIAN

Aipatutako ekintza guztien ardura ikasleen gain egotearen arrazoia, eskolak ikasleen artean bultzatu nahi duen auto-gestioa da, hau da, erresidentziako elkarbizitza, ikasketa konplementariorzat jotzen du Eskolak.

Helburu hori lortzeko egoitzan bizi diren lagunei inplikazio minimoa eskatzen zaie, hau da, egoitzan anto-

latzen diren ekintzetan parte hartu dezatela. Hau ez da zaila izaten, antolatzen diren aktibitate ugariak kontutan izanik, ikasle guztiak aurkitzen baitute euren gustokoren bat. Ikasturtea amaitzen denean eta izen-emateko epea zabalitzen denean, ikasle batek kurtsoan zehar izan duen partaidetza kontutan izaten da egoitzan jarraitu ahal izango duen erabakitzeko.

### ETXEBIZITZA ALA ERRESIDENTZIA?

Asier Telleriak, Eskolako Kontseiluko partaide batek esaten duen moduan, biak dira "leku tentagarriak": egoitzan lagunekin elkartu zaitezkeelako eta pisuan ezer ere ez egiteko arriskua dagoelako. Dena dela, egoitzan bizitzea askoz erosoagoa da: jatordu kontuak ez ditu ikasleak arduratzen eta aktibitate askotan parte hartu dezakete. Egoitzan bizitzea zerbait garestiagoa bada ere (hilean 37.000 pta.) merezi omen du.

Asier Telleriak esaten duenez, egoitzan oso giro ona dago, ez omen dago beste Ikasle Egoitza Nagusi batzuetan ikasleen artean egoten den "konpetibitatea". Ikasleen artean ez dela arazorik izaten eta guztiak lagun direla azpimarratzen du Asierrek.

Dena dela, duela 10 urte egoera ez omen zen berdina: egoitzara zuzendari berria joan zenean, "Komisio Subertsiboa" sortu zen. Komisio honek ekintza guztiak boikoteatzen zituen eta inork ez zekien nor osatzen zuen taldea. Bestalde, duela hiru urte, "Biteri Komandoa" izeneko talde anonimo batek, protesta orriak jartzen zituen eskola guztian. "Komando" hauek desagertu egin dira, eta lagun artean futbola dela eta ez dela sortzen diren "Komando Bizkaia" eta antzerakoak besterik ez daude gaur egun. Biteri Ikasle Egoitza Nagusiko gazteek, familia handi bat osatzen dute.

**B**iteri egoitzan ez dago beste erresidentzietan egoten den ikasleen arteko konpetibitatearik

## Rocio Fernandez, 18 urte, eibartarra

• **Erresidentzian bizi izatearen alderik onena?** Horrenbeste gazte jende artean bizitzea eta antolatzen diren aktibitateak.

• **Txarrena?** Gaueko ordutegia eta janaria.

• **Ostegunetan parranda asko?** Beno, erresidentzian giro berezia nabaritzen da baina azterketa garaia heltzen denean, ez dago parranda egiterik!

• **Zenbat denbora daramazu erresidentzian?** Joan zen urteko irailetik.

• **Zer moduz horrenbeste mutilen artean?** Oso gustora nago.




## Aitor Etxebeste, 19 urte, beasaindarra

• **Erresidentzian bizi izatearen alderik onena?** Jendea ezagutzen duzula eta oso eroso bizi naizela hemen.

• **Txarrena?** Batzuetan elkarbizitza; logeletan lau lagun egoten gara eta batzuetan ez gara konpontzen.

• **Ostegunetan parranda asko?** Normalean ez.

• **Zenbat denbora daramazu erresidentzian?** Urte t'erdi.



## Xabier Etxabe, 20 urte, zarauztarra

• **Erresidentzian bizi izatearen alderik onena?** Erosotasuna, ardurarik eza (jatorduak, etabar) eta aktibitateak.

• **Txarrena?** Elkarbizitzak bere alde txarrak ditu.

• **Ostegunetan parranda asko?** Ez dut irteten.

• **Zenbat denbora daramazu erresidentzian?** Bi urte t'erdi.







Dorletako Ama eskolako txirrindulariek zapatuan egin zuten aurkezpena

**DORLETAKO AMA TXIRRINDULARI ESKOLA**

**PRESIDENTEA:**

Jose Maria Roldan

**PRESIDENTEORDEA:**

Jesus Garai

**IDAZKARIA:**

Amaia Muguruza

**BOKALAK:**

Rafa Antia

Fidel Balgañon

Josu Estevez

Jose Frutos

Ane Josu Guede

Jacinto Sedano

Jose Galan

Luis Sebastian

**SENDAGILEA:**

Alberto Garai

**PRESTATZAILEAK:**

Juan Ignazio Errasti

Alfredo Meabe

Alex Iturbe

# Txirrindulariak denboraldia hasteko gertu

**Dorletako** Ama Txirrindulari Eskolak taldeetako kide eta babesleen aurkezpena egin zuen zapatuan. Ekitaldia Dorletako Santutegian izan zuten moza eta Amabirjinari egindako lore eskaintzarekin hasi zen. Goizeko 11.30etan, berriz, kide eta babesleen aurkezpena egin zen Gure-Ametza jatetxean. Fagor, Alejandro Altuna, Ford Mugarri-Sport Sasiain eta Arrasate Kirolak taldeetan banatuta, 45 txirrindularik hasiko dute aurtengo denboraldia. Dorletako Ama taldekoek martxoaren 11n izango dituzte lehenengo lasterketa ofizialak. Jubenilek, lehen zein bigarren mailakoek, Eibarren izango dute denboraldiko lehen lasterketa. Lehen mailako kadeteek Azpeitiako lasterketan hartuko dute parte eta bigarren mailako kadeteek Beasainen izango dute lehen erronka. Infantilek, berriz, apirilaren biamango diote denboraldiari hasiera Oñatin eta apirilaren 8an Aretxabaletako lasterketan

erakutsi beharko dute zertarako gai diren. 95 denboral-

dirako gutzia gertu dute Dorletako Ama taldekoek. Orain

emaitzak euren aldekoak izatea baino ez da falta.

**FAGOR**

**2. MAILAKO JUBENILAK**

**KIROL ZUZENDARIAK:**

Josu Estevez

Ane Guede

Jacinto Sedano.

**TXIRRINDULARIAK:**

Jorge Bachiller

Oskar Estevez

Roberto Fraile

Sergio Frutos

Iurgi Garai

J.A San Miguel

Iban Sastre

Haritz Uriarte

Gorka Valgañon

Zigor Sanchez

Imanol Carmona

Mario Navarro

**FAGOR**

**1. MAILAKO JUBENILAK**

**KIROL-ZUZENDARIAK:**

Josu Estevez

Ane Guede

Jacinto Sedano.

**TXIRRINDULARIAK:**

Mikel Roldan

Jose Sedano

Zuhaitz Herrero

Joan Ander Ramos

Iñaki Otero

Ekaitz Diez

Roberto Vazquez

## DORLETAKO AMA TXIRRINDULARI ESKOLA

**J.M.A. ( Alejandro Altuna)**

**2. MAILAKO KADETEAK**

**KIROL-ZUZENDARIA:**

Luis Sebastian

**TXIRRINDULARIAK:**

Luis Manuel Dorado

Oier Garro

Luis Gil

Aitor Kortabarria

J. Jabier Mateos

Jon Rubio

Mikel Sebastian

Ander Uralde

Iñaki Lete

Iraitz Diaz

Aitor Mendizabal

Gorka Gonzalez

**FORD MUGARRI-SPORT SASIAIN**

**1. MAILAKO KADETEAK**

**KIROL-ZUZENDARIA:**

Josu Estevez

Jose Galan.

**TXIRRINDULARIAK:**

Asier Sastre

Fran Galan

Roberto Frutos

Xabier Ayala

Xabier Beitia

Mikel Galindo

**ARRASATE KIROLAK INFANTILAK**

**KIROL-ZUZENDARIA:**

Rafa Antia

**TXINDULARIAK:**

Jon Agirre

Jose M Galan

Asier Antia

Iker Bernal

Imanol Garcia

Rafael Gomez



# Rugbykoak puntu premiarekin

## PENALTIAK

● **Eskola-arteko igeriketa txapelketak jokatu ziren zapatuan Musakolako igerilekuan. Bergara, Oñati, Legazpi eta Arrasateko igerilariek hartu zuten parte eta egin beharrekoa egin eta gero, honela sailkatu ziren Arrasateko ordezkariak: Amaia Agirrek lehen postua eskuratu zuen 50 metro bularrean eta Julen Romero 5. sailkatu zen distantzia berean. Danel Lazkano izan zen 100 metro bularrean irabazle eta Naiara Corcuer hirugarren tokian helmugaratu zen 100 metro-tan.**

● **Arrasateko Zikloturistek datorren zapatuan hasiko dute aurtengo denboraldia. Lehen irteerako ibilbidea: Arrasate, Arlaban, Dorleta, Legutiano eta Arrasate. 42 km. guztira.**

**Arrasateko** rugby taldea ez dabil gura litzatekeen beste-ko ondo denboraldi honetan. Egundaino jokatutako partiduetan ez dute emaitza onik lortu eta 9. tokian daude 4 punturekin. Lehen mailan hamar talde daudela kontutan izanda, mailari eustea lortuko badute, falta zaizkien neurketak irabazi beharra daukatela esan dezakegu. Erronka zaila baina ez ezinezkoa. Jokalariak kontzientziatu egin behar dira eta konfidantzaz jokatu. Datorren zapatuan Arrasate eta Ordiziaren arteko neurketa jokatuko da arratsaldeko 4retan Garagartzan. Ordizia ere sailkapeneko zuloan dago sartuta eta puntu premia du, beraz, lehia eta tentsioz beteriko neurketa izan daiteke. Jubenilek Urretxuren kontra jokatuko dute zapatuan baina arratsaldeko 3retan.

### Futbitoa

Lehen mailakoek Autonomia taldearen kontra neurtuko dituzte indarrak zapatuan arratsaldeko 6etan Iturri-



Rugbykoek partidu garrantzitsua izango dute zapatuan.

ripren. Arrasatek lau partidu irabazi, hamaika galdu eta hiru berdindu ondoren, hamaika puntu ditu eta sailkapeneko 13. tokian dago. Zapatuko aukariak 21 puntu ditu eta sailkapeneko 7. tokia betetzen du. Arrasatek ezin du etxeko partiduetan kale egin eta lehen mailan jarraitzeko gauza dela erakutsi dezake Autonomia taldearen kontra. Arabako territorialekoek Calzados Isabel izango dute etsai zapatuan arratsaldeko 4retan Iturripen. Hirugarren sailkatuaren kontra neurtuko dituzte indarrak

arrasatearrek, beraz, ez da, ez, nolana hiko neurketa izango.

### Mondra

3. mailako Mondrak eta Ondarruko Aurreraren arteko norgehiagoka egongo da ikusgai Atxabalpen domekan arratsaldeko 4.30etan. Mondrak Santurtziren kontra 1 eta 0 galdu zuen azken jardunaldian. Domekan Aurreraren kontra azken partiduetako emaitzak ahaztu eta garai-pena lortzeko aukera ona du. Partidua ez da samurra izango baina gogoz jokatzen badu Mondrak ez luke irabazteko arazorik izan behar.

## EMAITZAK

**Futbola**  
3. maila: Santurtzi 1- Mondra 0  
2. erregionala: Mondra 0 - Eibartarra 2  
**Emakumeak:** Mondra 8- Intxaurren 1  
**Jub Ohorezko liga:** Aurrera 0 - Mondra 0  
**Lehen kadeteak:** Arrasate 6- Aloñamendi 1  
2. kadeteak: Arrasate 4- Almen 3  
**Infantilak:** Aloñamendi 3- Arrasate 1  
**Hurrengoak:**  
3. maila: Mondra - Aurrera. Igandea. 4.30etan. Atxabalpe.  
2. erregionala: Urki - Mondra.

Igandea. 12etan.  
**Emakumeak:** Antoniona - Mondra. Igandea. 12etan.  
**Jub Ohorezko Liga:** Mondra - Beti onak. Larunbata. 4.30etan. Atxabalpe.  
**Lehen kadeteak:** Ordizia - Arrasate. Igandea. 10.30etan.  
2. Kadeteak: Arrasate - Eibar. Igandea. 12etan. Atxabalpe.  
**Infantilak:** Illintxa - Arrasate. Larunbata. 11.30etan.

### Saskibaloia

**Eba Liga:** Urbina Maltzaga 75 - Caja cantabria 85  
**Hurrengoak:**  
Lehen maila: V. Costeiro - Urbina Maltzaga. Larunbata.

### Eskubaloia

**Lehen maila:** Arrasate 31 - Bejarano 30  
**Lehen Territoriala:** Pulpo 25- Arrasate 20  
**Hurrengoak:**  
**Lehen maila:** Alcobendas - Arrasate. Igandea. 12.45etan. Madril.  
**Lehen Territoriala:** Arrasate - La Salle. Larunbata. 8etan. Iturripen.  
**Jubenilak:** Arrasate - Hernani. Igandea. 10etan. Iturripen.

### Futbitoa

**Lehen maila:** A. Tizona 3- Arrasate 4  
**Arabako territoriala:** Esparza

1- Arrasate 8  
**Hurrengoak:**  
**Lehen maila:** Arrasate - Autonomia. Larunbata. 6etan. Iturripen.  
**Arabako territoriala:** Arrasate - C. Isabel. Larunbata. 4etan. Iturripen.

### Rugbya

**Lehen maila:** Arrasate 3- Hernani 49  
**Hurrengoak:**  
**Lehen maila:** Arrasate - Ordizia. Larunbata. 4.15etan. Garagartza.  
**Jubenilak:** Arrasate - Urretxu. Larunbata. 3retan. Garagartza.  
**Emakumeak:** Elorrio - Arrasate.

te. Larunbata.

### Pilota

**Ohorezko liga**  
**Paletan:** Arrasate 29- Altza 35  
**Eskuz Banaka:** Arrasate 6- Llodio 18  
**Eskuz Banaka:** Llodio 18 - Arrasate 7  
**Hurrengoak:**  
**Ohorezko Liga**  
**Paletan:** Aramaioa - Arrasate. Larunbata. 11etan. Aramaio.  
**Deba Arroa**  
Oñati - Arrasate. Infantil, jubeni eta afizionatu mailan. Larunbata. Gaueko 9.30etan. Oñati.

## BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana, 12  
ARETXABALETA

## TXOKO TABERNA

Eure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak





"Arrasate 93" AEDko Lehiaketan multzorik onenean saritutako argazkia - KARMELO URIBARREN.

# Sotanarekin

(Asteburu aldera doinuan)

- ① Le(he)ngo fraile kontuak  
nahi nituzke batu,  
nahi nituzke batu,  
nahiz ta beren buruak  
behartsutzat hartu,  
majo bizi zirenik  
ezin dut ukatu,  
baina aurrez bertsoak  
kantatzen bukatu  
eta gero hala den  
norberak juzgatu.
- ② Fraileak ziren ia  
munduaren jabe,  
munduaren jabe,  
lanerako zeuzkaten  
hamaika mirabe,  
denak goseak eta  
osasunez grabe,  
beraiek aldiz zeuden  
ministroen pare,  
ehun ta hogeit bat kilo  
sotanarik gabe.
- ③ Behin asmatu zituzten  
dozena bat arau,  
dozena bat arau,  
beren mesederako  
handikan hamalau.  
Adibidez morroiei  
esaten zien hau:  
"zuen kristau fedek  
bizirik badirau,  
egin urte guztian  
bijili ta barau".
- ④ Fraileak otowitzera  
joaten ziren alai,  
joaten ziren alai,  
Jainkoa omen zuten  
eleizan beren zai.  
Bibliara begira  
egongo ziren bai,  
baina irudipena  
hegazean nonahi,  
zertaz pentsatzen zuten  
ez nuke jakin nahi.
- ⑤ Noizbait neskaren batek  
esatan kaixo,  
esatan kaixo,  
adurra zeriela  
guztiak hari so.  
Gero gauez "lanean"  
arre eta iso,  
baina eskaileretan  
somatuz Don Tirso,  
azkar denok lotara,  
bukatu da, ixo!
- ⑥ Hau ikusiz nik nola  
pentsatu bi bider,  
pentsatu bi bider,  
bokaziorik banu  
fraile nintzen laister,  
baina bertsoak jartzen  
jardun badut oker,  
aurrerantzean gerta  
ez dakidan ezer,  
errezatu nigatik  
hiru "Pater noster"

Bertso-paperetan akzesita gazteen sailean- AMAIA AGIRIANO



# San Viator Ikastola Elkarlanean eta baloreetan oinaturrik hezten



## Zain aldaketa izan dira Lehen Hezkuntzan azkenengo urteotan?

San Viator Ikastolan kalitatezko irakaskuntza eman nahian eta urteek emandako esperientzian oinarriturik, Hezkuntzaren Erreformak markatutako bide berria orain laupabost urte hasi ginen jorratzen, gure Proiektu Kurrikularra garatzen eta egokitzen.

Aldi berean, eta espazio fisikoa antolaketan berriarekin, Lehen Hezkuntza San Viator Txikin, Santa Barbara parkearen ondoan, kokatu genuen.

## Zelintzuk dira San Viatorren ezaugarriak?

Ahalegin haundiak egiten dira dauzkagun ikasle desberdinei erantzun egokia emateko. Garbi daukagu ikasle guztiak ez direla berdinak eta ezin dugula formula bakarrarekin jokatu.

Tutorearen papera azpimarratuko nuke, bai jarraipen akademikoan, bai pertsonalean. Laguntza handia jasotzen dute tutoreek Orientazio sailetik, hala psikologoarengandik nola laguntza gelako arduradunarengandik. Guztion koordinazio egokia bilatzen saiatzen gara.

Gure ikasleak bere ikasketa prozesuaren "protagonista" izan behar duela pentsatzen dugu, horregatik gela barruko edo gelaz kanpo antolatzen diren ekintzetan autonomiaren espa-



**Pilar Askasibar**

rrua mantentzen saiatzen gara, adinaren arabera haundituaz joan beharko dena.

Harremanetarako beharrezkoak diren baloreak, pertsonarekiko errespetoa, solidaritatea eta laguntasuna, kristau ikuspegitik lantzea dugu helburu.

## Zain ordutegi du Lehen Hezkuntzako ikasleak?

Goizez, 9etatik 13etara eta arratsaldez, 2,30etatik 4,30etara. Egunero goizeko 8etatik aurrera HARRERA GELA eskaintzen dugu lehenago etorri nahi dutenentzat

eta arratsaldez, ikastolan bertan 4,30etatik aurrera, ekintza ludikoak daude antolatuta; abesbatza, kirolak, mediateka...

Gogoratu baita eguerdian JANTOKIA zabalik dugula.

**INFORMAZIO GEHIAGO  
NAHI IZANEZ GERO,  
NIREKIN, PILAR  
ASKASIBARREKIN,  
JARRI ZAITEZKE  
HARREMANETAN.  
TFNOAK: 79 04 11 - 79 13 24**



## Jose Mari Zeberio

### Lau urteotarako hizkuntz politikaz mintzo

**Hizkuntza Politikarako Idazkari Nagusiak (HPIN) eman zuen hitzaldian konpromezua etajarrera egokia izan zituen hizpide. Era berean, hizkuntz politika egitea denon eginkizuna dela azpimarratu zuen.**



guztiz inportantea da, eta guztiz beharrezkoa.

— Datozen udal hauteskundeak direla eta, zer eska dakieke udalbatza osatuko duten zinegotziei?

— Jarrera egokia, konpromezua eta baita politika bat ere, hizkuntz politika bat. Udalaren atal guztietan, arlo guztietan, eta ez dadila mugatu bakarrik kultura edo euskara batzordera.

— Zein izango da datozen lau urteotarako HPINren politika?

— Alde batetik, orain arte ari garen arlo guztietan sakontzen jarraitu behar da. Orain arte egin denari tinko eutsi behar zaio, bai herritarren

konpromezuari, baita administrazio desberdinen konpromezuari ere. Herritar guztiek onartuko duten hizkuntz politika bat egin behar da eta herritarrek ahalik eta gehien identifikatu behar dute egiten

denarekin, zeren guztien onarpena duen neurrian balioko du herri hau koexionatzeko eta integratzeko.

— Posible ikusten duzu talde politiko guztien arteko kontsentsua euskararen normalizazio prozesurako?

— Teorian guztiek diote elebitasunaren alde daudela. Badirudi, epeetan edo erritmoetan dagoela arazoa. Aukera izango dugu ekiteko, eta horretan definitzeko. Azken helburuetan ados baldin bagaude, espero dut ados jarriko garela erritmoetan. Batzuk azkarrago joan nahiko dute, beste batzuk geldoago. Niri helburuak ematen didate kezka nagusia.

— Zer aportatu dezake/te AEDK/euskara elkarteek?

— Herritarren konpromezua eta gainera, konpromezu organizatu bat.

— Eta nola ikusten dira HPINtik?

— Erabat positibo eta ondo, eta gainera, guztiz beharrezko.



*“Talde politiko guztiak daude teorian elebitasunaren alde.”*

## LABURRAK

### “Todas culpables”

Ostiralean, martxoak 3 eta Emakume Langilearen Nazioarteko Egunaren inguruan prestatutako egitarauaren barruan, Tanttaka antzerki taldearen “Todas culpables” antzezlanaz izango da ikusgai gaueko 10.30etan Amaia antzokian.

Tanttaka taldeak 1983. urtean ekin zion bere iharduera profesionalari. Hamabi urte hauetako produkzioan hainbat alor jorratu dute, drama naturalistatik hasita (“Agur Eire Agur”), opera bufora (“Flaminio”), fartsara (“Adagio violentissimo”), gaur egungo dantzara (“Zilbor hestea”) edo musika alorrera (“Peligro, te quiero”). Taldeak, orain, bi ikuskizun berri gehitu dizkio produkzioari: “Todas culpables” eta “Chiquilladas”.

Ematasun erantzulearen gaineko gogoeta ludiko-ironikoa da “Todas culpables” antzezlanaz. Azaltzen diren lau protagonistak emakumeak dira eta seme-alabaren bat eduki nahi izan dute inoiz. Hau ezinezkoa izan zaie edo agian ez dute lana uztea nahi izan denbora guztia umei eskaintzeko.

Antzezlanak ikasbide hau kaleratu nahi du: “Ahal duzun eta ondoen egin ezazu, baina batez ere, ez zaituz erudun sentitu, mesedez”.

Sarreraren prezioa 700 ptakoa izango da eta ostiralean bertan antzokiko takilan salduko dira. Ez galdu aukera; antzezlanaz paregabea da eta!

**ITSASKI**

ARRANDEGIA

Arrain freskoa eta jaki izoztuak

Urbe Auzoa  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 98 94



PEUGEOT

Salmenta eta zerbitzua

**IBABE  
GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

**TXOKO  
TABERNA**  
Eure berezitasunak  
pintxo eta  
mokau gozoak



# Urrezko abotsak

**Zapatuan** eta igandean, Amaia Antzokian inoiz izan diren ikuskizunen artean handienetarikoa eta onenetarikoa birekin gozatu ahal izango dugu, Verdiren "La Traviata" eta "Otello" operak, alegia. Arrasate Musikalen eskutik, Ostravako Antzerki-Taldearen Opera Nazionalak eskainiko dizkigu operok. Mundu zabalean ezagunak diren opera hauek, jendetza izugarria ekarriko dute Arrasateko antzokira, konpositore italiarrak egindako operen artean handienetarikoa dira eta hauek. Adierazgarria da oso astelehenerako "La Traviata" operarako sarrerarik ez zela geratzen.

"La Traviata" zapatuan arratsaldeko 7etan izango da eta "Otello", igandean betan.

## 1919TIK EZENATOKIAN

1912ko abuztuaren 12an, txekiar errepublika indepen-



"La Traviata" rako sarrera guztiak astelehenetik daude salduta.

dienteko Moravska Ostrava hiriko batzordeak antzerki talde bat sortzea eztabaidatu zuten eskaini zuen konpainia honek bere lehenengo obra: "Emaztegai saldua" antzez-lana. Garai hartarako eta Moravska Ostrava hiriaren he-

dadura txikia kontutan izanda, 130 lagunek osatutako artista taldeak perspektiba onak erakutsi zituen. Antzerki talde hau ospe handiko artistek osatzen zuen eta taldeak bere opera, drama, opereta eta baleta zuen. Hasiera har-

tan 32 lagunek osatzen zuten orkestra, 28k korua eta 26k baleta. Egoera ekonomikoa latza bazen ere, antzerki talde honek bizirik iraun zuen artisten adoreari esker, eta gaur egun, oraindik ere, bizirik jarraitzen du.

## "La Traviata"

"La Traviata" 1853ko martxoaren 3an estreinatu zen. Orduan, dena dela, ez zuen arrakastarik izan. Arrakasta eza hau, ez zen musikarengatik edo obrarengatik izan, pertsonaia nagusiak interpretatu zituzten artistengatik baizik. Artistak aldatu eta berriro antzeztu zenean, handik urtebetera, izugarritzko arrakasta izan zuen. Geroztik, "La Traviata" da opera munduan gehien taularitzen den lanetarikoa bat.

### Argumentua

Violeta azaleko munduko anderea da. Gaisotasun larria du eta atake bat izan ondoren, gizartera itzuli da. Bueltatze hori ospatzeko jaiak antolatzen du bere etxean. Jai horretan, Alfredo Germont ezagutzen du eta maitemindu egiten dira. Hiru hilabeteen elkarrekin bizi ondoren, egun baten Alfredoren aitak bere semea uzteko esaten dio Violetari. Arrazoia: bere alaba, Alfredoren arreba, ezkontzera doa, baina gauza bakar batek botatzen du atzera: Violeta eta Alfredoren arteko harremana gaizki ikusita dago. Alfredo etxera itzultzean, Violetak agurtu egiten du azalpenik eman gabe. Dena dela, Violetak bera ez beste inor ez duela maite zin egiten dio. Hala ere, Alfredok mendekua hartzea erabakitzen du. Egun batean, Violeta festa batean dagoela, Alfredo agertzen da eta honek "bere maitasunaren sari gisa" dirua botatzen dio oinetara. Violeta bakarrik dago eta dirurik gabe. Aspalditik zuen gaisotasunak gogor jo du eta hilaginean dago. Alfredoren aita, damututa, bikotea elkartzen ahalegintzen da.

## "Otello"


Giuseppe Verdi 1885ean hasi zen obra hau lantzen Arriago Boito literatoarekin elkarlanean eta oso emaitza ona lortu zuen. Gertaerak irlan kokatzen dira eta testua hiru pertsonaia nagusien artean sortzen den gatazkan oinarritzen da.

### Argumentua

Irlako biztanleek, ekaitzaren erdian dagoen itsasontziari begira, otoitz egiten dute. Otello, Veneziako Errepublikaren zerbitzura dagoen buruzagi mairua, itsasontzitik ateratzean, gorripatu egiten dute guztiak, turkiarren eta ekaitzaren garaile delako. Yago da Otello gorrotatzen duen bakarra. Hori dela eta, Yagok Rodrigori eman dio bere adiskidetasuna, Rodrigok Desdemona, Otelloren emaztea, maite baitu eta uste baitu, emakumeak fidelak ez direnez, Desdemona laster aspertuko dela mairuarekin. Ekaitzaren ostean garaipena ospatzen ari dira. Desdemonak Otellorekin hitz egiten du eta honek maitasuna eta zortea sentitu, eta musu emateko eskatzen dio.







guruko mendietan, eta akaso edur gehiago ikustekoak izango gara. Ez dakiguna da 1956ko erretratu honetan beste egingo duen.

Santa Barbaran edurpelotak makina bat jolas egin zuten neska-mutiko hauek. Edurrezko panpinaren inguruan bilduta argazkilariari

stean izan dugu edurra, in-

edur-pelota botatzeko gertu daudenak:

Zutik ezkerretik eskumara: **Loreto del Valle, Lurdes Egidazu, Pilar del Valle, Jose Luis Agirregomezkorta** (atzean), **Juantxu Axpe, Mario Ugarte, Alberto Amoza-rrain, Juanito Zubizarre-**

**ta, Vitoria, Barrena, Maitte Urrutia, Alejandro Ezkurra, Patri Etxabe "Muxibar", Pedro Otadui eta Agirreurreta.**

Behean makurtuta, ezkerretik hasita, **Jose Luis Atxa, Juana** izeneko neska arabar bat, **Jabi del Valle** eta **Esther del Valle.**

**Begoña**  
lurrindegia  
Drogeria  
Jostailuak  
Opariak

Gipuzkoa Etorb. 33,  
Musakola Auzoa,  
Tfnoa: 79 03 73

comercial  
san juan

Garibai, 12  
Tfnoa: 79 13 05

hikein  
MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4  
Tfnoa: 79 13 84

BASABE  
JATETXEA

Menu eta afariak  
Boda eta bankefeak

Tfnoa: 79 91 84

ARETXABALETA



# GURE ETORKIZUNA DELAKO, HAZI ETA HEZI ZEURE HAURRAK EUSKARAZKO IRAKASKUNTZAN



**ARRASATEKO  
UDALA**



**ARRASATE  
EUSKALDUNTZEN  
ARI GARELAKO.**

**ETORKIZUNA  
EUSKARAZ  
DATORRELAKO.**

**ARDURATU ZUEN HAURRAK EUSKARAZ IKAS DEZATEN!**



• ESAERA ZAHARRA •

*“Ikasten ez duenak etxean, ez lekike zelaian”*

• JEROGLIFIKOA •



Gipuzkoako herri bat.

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8				9		
10			11			
12			13		14	
15				16		
17			18			
19				20		

J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. Ugaltzearen ekintza eta ondorioa. 8. Sudurretik hartzen den tabakoa. 9. Ku Klux Klan. 10. Arrazoi, motibo. 11. Alfabetoko 11. letraren izena. 12. Eltze eta gainerako ontzi-multzo. 15. Arabako udalerria. 16. Laztan, musu. 17. Kanpo. 18. Olerkari. 19. Trebe. 20. (Ald.) Ginebra.

**Bertikalak** 1. Josu, Mondrako atezaina. 2. Bizkotxo txiki eta mehea. 3. Harro. 4. Leongo ibilgailuetan. 5. Elkartzearen ekintza eta ondorioa. 6. Atikoan dauden kontsonanteak. 7. (Ald.) Tirabira gogorra. 11. Zerbait erretzean sortzen da. 13. Apo. 14. (Ald.) Txerritoki.

• HOROSKOPOA •

**Aries** Ezpainak handituta dituzu. Silikona jarri duzu?

**Taurus** Txapela buruan eta ibili munduan, baina inor molestatu barik.

**Gemini** Mozorroa kentzea ahaztu? Haratuzteak pasa dira ba.

**Cancer** Irratiarekin oheratzen zara eta ondokoari ez diozu kasurik egiten.

**Leo** Gurasoen etxea anaiarendako izango da. Berriz ere, aurea hartu dizu.

**Virgo** Jendeari zeharka begiratzen diozu. Zer zarelakoan?

**Libra** Lekutara joan zara bikotea aurkitzen!

**Scorpio** Gaur ere bi lagunendako gosaria egin duzu. Egunez ere ametsetan.

**Sagittarius** Aharrausi egiten duzunean hagineta zulo guztiak ikusten zaizkizu.

**Capricorn** Honez gero datorren urterako mozorroa gertu izango duzu, ezta?

**Aquarius** Eguraldia aldatu du eta zure umorea ere bai.

**Piscis** Arazo pertsonalak direla eta zure zuzendariak dimititu egingo du.

# Etxe-Aundi



Galdetze hutsagatik andregaiak oparia jasoko du

## ZUEK ESAN PREZIOA ETA GUK MENUA

Zuen eskontza gurekin ospatzen baduzue,

EZKONTZAKO CAVA GURE KONTU

*Ana de Codorniu*





## • TELEBISTAREN TXOKOA •



## “Martxoak 8” programa berezia

**A**steazkenean Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna dela eta, asteartean programa berezia izango da Arrasate Telebistan. Programa **Arantzazu Loidik** aurkeztuko du eta lau emakume gonbidatu izango dira berarekin batera: **Kontxi Berezibar**, 58 urteko baserritarra; **Garbiñe Txintxurreta**, 24 urteko gaztea; **Rosa Larrañaga**, langilea eta **Joxepa**, hirugarren adineko emakumea. Programan garai desberdinetako emakumeen lanbideak erakusten dituen pelikula eskainiko da eta horren gainean hitzegingo dute gonbidatuek. Bestalde, kalean egindako inkesta bat ere eskainiko da, eta baita Arrasateko Emakume taldeei buruzko erreportaia ere. Programa hau asteartean, albistegiaren ondoren izango da 9.30etan.

## • KOMIKIA •



## Etxe-Aundi

## 1. PLATERA

Txiki eta porretxiko entsalada  
Frijitu aukeratuak

## 2. PLATERA

Haragia edo arraina

## POSTREA

Etseko gosoleria

## ARDOA

Etseko ardo gorria eta beltza

Kafea

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

## Monte taberna

Maalako arrabala, 11  
Tfnoa: 79 20 56

## • PROGRAMAZIOA •



## 5 Igandea

21.30etan  
Mondragol. Itxaro  
Zubillagak aurkeztua.

## 6 Astelehena

20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Mondrasport

## 7 Asteartea

13.30etan  
Mondrasport (errep.)  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
“Martxoak 8” programa  
berezia.

## 8 Astezkena

13.30etan  
ATBketan (errep.)  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Gazte-Nahaste. Gaia:  
Emakumeen Nazioarteko  
Eguna.

## 9 Osteguna

13.30etan  
Gazte-Nahaste (errep.)  
20.30etan  
Berriak  
21.30etan  
“Trebelanak”

## 10 Ostirala

13.30etan  
“Trebelanak” (errep.)  
19.15etan  
Marrazki Bizidunak  
19.50etan  
Kukaratxa Motel  
20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Astebete  
22.00etan  
Marrazki Bizidunak

## • SOLUZIOAK •

Idiazabal.  
Jeroñifikoa:  
Gatazka. 11. Ke. 13. Zapo. 14. Itoi.  
Apor. 4. Le. 5. Ekarpem. 6. TK. 7.  
Bertikalak: 1. Urzelai. Gaitera.  
19. Iai. 20. Gim.  
15. Leza. 16. Por. 17. At. 18. Poeta.  
KKK. 10. Zio. 11. Ka. 12. Elizterta.  
Horizontalak: 1. Ugalaketa. 8. Kape.



**Etxebizitzak**

- **Nesken etxebizitza bat osatzeko bi pertsona behar dira.** Tfnoa: 79 11 85.
- **Etxebizitza salgai Urriburu kalean.** 3 logela, komuna, sukaldea, egongela berogailu indibiduala, garaje opzionala. Tfnoa: 79 39 91
- **Bi oheko gela alokagai.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Nesken etxe batean logela alokatzen da.** Tfnoa: 81 22 06. Saioa.
- **Pisu bat alokatzen da Erdiko kalean.** Tfnoa: 79 18 03 / 77 03 38.
- **Pertsona bat behar da pisua osatzeko, Grosen, Donostian.** Tfnoa: 29 11 10. Jontxu.
- **Nesken pisu batean pertsona bat behar da.** Tfnoa: 77 06 25.
- **Etxebizitza alokatzen da Garibai kaleko 16. zkian.** Prezio interesgarria. Tfnoa: 79 77 86.

**Lana**

- **Laguntzaile gisa egingo luke lan etxebizitzetan, tabernetan, atarrietan, kontsultategietan,...** Tfnoa: 79 96 10.
- **Neska, umeak zaindu, etxeko lanak egin edo lokalen garbitasun lanak egiteko prest.** Tfnoa: 79 37 68.
- **Klase partikularrak ematen dira, UBI eta asig-natura batzuk (Matematika, fisika, kimika, informatika,...) euskaraz eta erdaraz. Talde txikiak.** Tfnoa: 79 56 82 eta 79 71 89.
- **Gaisoak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest.** Tfnoa: 79 88 40.
- **Aizu, neska.** Denda batean lan egin nahi baduzu, bidali zure datuak 259 posta kutxatilara (Arrasate).

- **Umeak edo adineko pertsonak zainduko nituzke.** Tfnoa: 79 23 54.
- **Esperientziadun emakumea, prest garbitasun lanak eta etxeko lanak egiteko.** Tfnoa: 79 15 19. Informeak eskuragarri.
- **Andra bat etxeko lanak egiteko prest.** Orduka Tfnoa: 77 10 20. Nati.
- **Neska esperientziaduna umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko prest..** Tfnoa: 79 77 94.
- **Andra erizain auxilierra eta esperientziadun gerokultora pertsona nagusiak zaintzeko prest.** Tfnoa: 79 34 53.
- **Emakume euskalduna umeak zaindu edo interina lan egiteko prest.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Neska bat OHOKo klaseak emateko prest dago.** Euskaraz edo erdaraz. Tfnoa: 79 25 09.
- **Neska esperientziaduna umea zaintzeko eta garbitasunak egiteko prest.** Tfnoa: 77 14 21. Usoa
- **Lanak makinaz nahiz ordenadorez pasatzen ditut.** Interesatuak 79 36 63 tfnora deitu eta Arantxirengatik galdetu.
- **Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko edo etxeko garbiketarako egiteko prest.** Harremanetarako dei egin 79 79 87 tfnora. (Isi Mellado).
- **Andra bat eskaintzen da arratsalde edo aste-bukaeretan pertsona nagusiak zaintzeko.** Tfnoa: 77 04 60.
- **Informatikako klaseak ematen dira.** Arrasaten, Aretxabaletan eta Eskoriatzan. Tfnoa: 77 02 59. Iker.

**Salerosketak**

- **100 litroko FAGOR termoa saltzen dut prezio onean.** Tfnoa: 79 07 73.

- **FORD ESCORT XB3i-a salgai.** (SS-AC). Tfnoa: 71 43 31.
- **Garaje itxia alokatzen da, Larrea aldean.** Tfnoa: 79 69 41. Julia.
- **10 litroko FAGOR kalentadorea salgai, ia berria.** 13.000 pta. Berogailu japoniarra, handia eta berria, 35.000 pta. Tfnoa: 77 01 64.
- **FORD FIESTA 1.100 Trip salgai.** SS-AB. Ondo zaindua eta prezio onean. Tfnoa: 76 46 80. Gaez deitu. Anabel.
- **Roneoko etxeetan garajea alokagai.** Tfnoa: 79 36 39.
- **Garajea alokagai Urriburu auzoan.** Tfnoa: 79 90 30
- **RENAULT 4-a salgai. 50.000 pta.** Matrikula: SS-T. Tfnoa: 79 58 82 (astebukaeretan).
- **Bigarren eskuko altzariak salgai.** Tfnoak: 79 23 97 / 79 52 80.
- **Kanping edo karro erremolkea salgai.** Tfnoa: 79 00 99.
- **Renault 14-a salgai. 50.000 pta.** SS-P. Tfnoa: 79 58 82.
- **Bi garaje plaza alokatzen dira.** Tfnoa: 79 82 95. Amaia. Arratsalde.
- **BMW K-75-S salgai.** SS-AK matrikula. 27.000 km. Berria eta prezio onean. Tfnoa: 77 04 21.

**Denetarik**

- **Astelehenetan, goizeko 9ak baino lehen Bilbon egon beharra dut, baina ez daukat auto-rik.** Norbaitek eraman ahal izango banindu, gastuak erdibana egingo genituzke. Tfnoa: 79 76 90. Ana.
- **ARRASATE PRESS-eko 192. zenbakia behar dut.** Tfnoa: 79 55 04.

**Aste Gazte**

**Bekak**

- "Jose Miguel de Barandiaran" Fundazioak, Etnologiaz ikerketa-beka deitu du. Bakar-kako lagunek nahiz lantaldeek har dezakete parte. Ikerketak bi urteko iraupena izango du. Dokumentazioa aurkezteko epea: martxoak 31.
- "Teruelgo Diputazioak eta Grupo Endesak" bost beken deia egiten dute Arte Plastiko-etan. Epea: ekainak 30.

**Lana**

- Barakaldoko Udalak lanpostu hauek kaleratu ditu. Administ-rari bat, Arkitekto Tekniko bat, Ikuskatzaile Fiskal bi, Indus-

- tri Injineru tekniko bat, Industri Injineru tekniko bat (kimika). Epea: Martxoak 12.
- Donostiako Udalak lanpostu hauen deia egiten du. Hogei Suhiltzaile, Arkitekto bat, bi Albaitari, Ingurugiro Goi Teknikari bat, Ingurugiro Teknikari laguntzaile bat, Komunikazioetako operadore bat, Euskararen Udal Patronaturako laguntzaile bat. Epea: martxoak 10.
- Errenteriako Udalak lanpostu hauek deitu ditu. Hiru Administ-rari, Administ-rari laguntzaile bat, Arkitekto bat, Informatikako teknikari bat, Gizarte laguntzaile bi, Enprestarako erizain bat, Informatika-

ko laguntzaile bat, Operari bat. Epea: martxoak 28 gutxi gorabehera.

**Ikastaroak**

- Euskal Dantzak, 15 urtetik gorakoentzat. Martxoaren 24tik San Juanak arte. Ostiralero, 7etatik 8.30etara. Matrikula, 1.000 pta.
- Argazkigintza. Sakontze maila. Maiatzaren 8tik 25era. 7.15etatik 9.15era. Matrikula 3.500 pta / 2.000 pta ikasle eta lan-gabetuentzat.

**Lehiaketak**

- "Errenteriako Hiriko Komikien VII. Lehiaketa". 16-30 urte bitarteko gazteek parte hartu ahal izango dute. Pertsonaia jatorrizkoak eta argitaratu gabekoak izan beharko dute. Epea: apirilak 28.

**"Bazirudien suetako kea nahikoa zela gazaroko edertasun osoa instant batean berreskuratzen."**  
**GUSTAVO MARTIN GARZO**  
**"EL LENGUAJE DE LAS FUENTES"**



**Informazio gehiago:**  
**GAZTE ZERBITZUA**  
**Tfnoa: 77 00 65**





# Arrasateko OSASUN GIDA

## **ALBAITARIAK**

ALTAMIRA KLINIKA J.L.Iñarra, 24-Behea ..... ☎797489  
ZARUGALDE KLINIKA Zarugalde, 25 behea (24ordutan) ..... ☎791531

## **ALERGIA ETA ASMA**

ATXEN ARANZABAL Olarte, 43..... ☎798100 / 798111

## **DENTISTAK**

ADUR MEDIKU INSTITUTU ODONTOLOGIKOA Iturriotz 35 ..... ☎799560  
ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz 17,1 Ezk..... ☎797223  
ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea..... ☎797190  
DENTAL-ZURI (Lagun-Aro, Osakidetzako haur programa) Arrasate Pasealekua, 33..... ☎770136  
GIPUZKOA ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETAKO ZENTRUA Iturriotz 7 Bis..... ☎797388  
IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz 7, 1º ..... ☎796945  
LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3 1.-B ..... ☎771263

## **DIETETIKA ETA NUTRIZIOA**

MARIBI SERRANO Kalealdea, 11- behea ..... ☎796578  
LOREA ARANBURU Drea. BETI-ONA GIMNASIOA Uribarri Etorbidea, 12..... ☎770067

## **FISIOTERAPEUTAK**

ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis ..... ☎770396

## **GINEKOLOGOAK**

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA Zerkaosteta, 17-Behea ..... ☎792018

## **LOGOPEDIA**

ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Zurgin Kantoi 3-Esk ..... ☎797946  
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10 ..... ☎794877

## **MASAIK - AKUPUNTURA**

AMAIA ORTE (Akupuntura) Erguin, 26 -1 ..... ☎794149

## **MEDIKU-DIAGNOSTIKOAK**

UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ..... ☎794422

## **OPTIKA**

ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ..... ☎792598  
GARAGORRI OPTIKA (Optika eta optometria) Iturriotz 29..... ☎791698


## **PSIKOLOGOAK**

NUÑEZ MONREAL Olarte, 10 ..... ☎798816  
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10 ..... ☎794877

## **REUMATOLOGIA -BIZKARREZURTERAPIA**

GOROSARRI-TROJAOLA Dreak. Zaldibar 1, 1..... ☎770040





centro  
hogar  
MUEBLES



**Amuebladora  
Mondragonesa**

Sartzen dena:  
Zeuk behar dituzun  
altzariak

**ARRASATEKO BARIANTEAN**